



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

# Gradu Amaierako Lana

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2017/2018 ikasturtea**

**GAUR EGUNGO ETA ETORKIZUNeko IRAKASLERIAREN  
FORMAZIOA ESKOLA HEZKIDETZAILEAREN BIDEAN**

**Egilea: Nerea Rubio Gómez**

**Zuzendaria: Iratxe Gillate**

**Leioan, 2018ko maiatzaren 30ean**

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	3
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: .....	4
1.1. Eskola segregatutik eskola mistora .....	4
1.2. Eskola hezkidetzaila .....	5
1.3. Sexismoaren transmisio erak .....	6
1.3.1. Curriculum ezkutua .....	6
1.3.2. Azaleko curriculum .....	8
1.4. Irakasleen jarrera aldaketa hezkidetzailerekiko .....	9
2. Atal enpirikoa .....	11
2.1. Metodologia .....	11
2.2. Helburuak .....	11
2.3. Hipotesiak .....	11
2.4. Prate-hartzaileak .....	12
2.5. Aldagaiak neurtzeko tresnak .....	12
2.6. Diseinua eta prozedura .....	13
2.7. Datuen analisisa .....	14
3. Emaitzak eta ondorioak .....	14
3.1. Emaitzak .....	14
3.2. Eztabaida eta ondorioak .....	24
4. Erreferentzia bibliografikoak .....	26
 ERANSKINAK	
1. eranskina. Behaketa-orria .....	28
2. eranskina. Elkarrizketa behatutako irakasleari .....	30
3. eranskina. Galdetegia irakasle-taldeari .....	31
4. eranskina. Galdetegia ikasle-taldeari .....	36
5. eranskina. Elkarrizketa ikastetxeko irakasleari (beteta) .....	39

## **GAUR EGUNGO ETA ETORKIZUNeko IRAKASLERIAREN FORMAZIOA ESKOLA HEZKIDETZAILEAREN BIDEAN**

Irakasleen formazioa ezinbestekoa da eskola hezkidetzaileria lortzeko, beraz, gaur egungo egoera ezagutzea nahitaezkoa da. Lan honek bi helburu nagusi ditu: batetik, irakasle batek ezkutuko curriculumaren barne dagoen sexismoaren inguruko kontzientzia aztertzea eta bere egunerokotasuneko praktikekin alderatzea, eta bestetik, jardun profesionalean diharduen irakasle-talde baten eta irakasle izateko formatzen ari den ikasle-talde baten hezkidetzaren inguruko ezagutzak eta jarrerak konparatzea. Metodologia kualitatiboa, 25 eguneko behaketa eta elkarrizketa, eta kuantitatiboa, galdetegia, erabili dira. Lortutako emaitzek adierazten digute irakasleek curriculum ezkutuko sexismoa identifikatzeko zailtasunak dituztela eta belaunaldi berriek ezagutza maila altuagoa dutela. Ondorioz esan ahal da, formazioa ez dela behar bezain sakona baina hobetuz doala.

*Hezkidetzeta, ezkutuko curriculum, azaleko curriculum, sexismoa, Lehen Hezkuntza*

La formación del profesorado es indispensable para una escuela coeducativa, por ello, urge conocer la situación actual. Este trabajo contiene dos objetivos: conocer la conciencia del un profesor sobre el sexismo del curriculum oculto comparandolo con sus prácticas, y contrastar los conocimientos y actitudes sobre coeducación de profesorado ejerciente y de alumnado de Magisterio. Se han utilizado la metodología cualitativa, una observación participante de 25 días y una entrevista, y cuantitativa, una encuesta. Según los resultados, al profesorado le cuesta identificar el sexismo del curriculum oculto y las nuevas generaciones muestran mayor conocimiento. Lo que nos lleva a pensar que a pesar de que su formación ha mejorado sigue siendo superficial.

*Coeducación, curriculum oculto, curriculum explicito, sexismo, Educación Primaria*

Teacher's training is indispensable to achieve coeducational school; therefore, it is essential to know about the current situation. This work has two objectives: first, to investigate a teacher's awareness of sexism occult in hidden curriculum comparing it with his practices, and secondly, to compare the knowledge and attitudes of practising teachers with ones of future teachers. There are used qualitative methodology, a 25 days participant observation and an interview, quantitative, a questionnaire. According to results, teachers show difficulties to identify hidden curriculum's sexism and new generations demonstrate a biggest knowledge, so, the training is not deep enough but it improves.

*Coeducation, hidden curriculum, explicit curriculum, sexism, Primary School*

## Sarrera

Jendartean gertatzen den bezala, eskolan ere sexismoa eta matxismoa ematen dira, izan ere, azken hau, bizi dugun sistema ekonomiko, kultural zein sozialaren erreprodukzio hutsa da. Bizitzako esparru denetan ematen da sexismoa baina honek bere burua azaleratzeko forma anitzak hartzen ditu; batzuk oso ikusgarriak eta identifikagarriak eta beste batzuk sotilak eta identifikatzeko zailagoak. Jendartean bezala, eskolan, bigarren hauen lanketa ia nulua da, ezkutuko curriculumaren bidez azaleratzen baitira eta ez baitaude hezkuntza komunitatearen kontzientziaren barne.

Hortaz, praktika aldia aprobetxatuz, esleitutako irakasle-tutoreak ezkutuko curriculumaren bidez transmititzen den sexismoaren inguruko kontzientzia aztertzea izan da lanaren helburu bat. Gerora, honek egunerokotasuneko praktiketan transmititzen duen sexismo forma inkontzienteak aztertuz, konparaketa bat egiteko. Guzti hau, metodologia kualitatiboaz eraman da aurrera, behaketa parte-hartzailearen eta elkarrizketa baten bidez.

Beste alde batetik, eskolak transmititzen dituen sexismo formekin amaitzeko, batez ere hain ikusgarriak ez diren horiekin, hezkidetza beharrezkoa da. Eskola hezkidetzailak, gaur egungo eskola mistoak dituen gabeziak gainditzeko esku-hartze hezitzailea da baina horretarako, ezinbestekoa da irakasle formazioari arreta eskaintzea.

Unibertsitatean, ikaskideei GRAL honen gai orokorra zein zen azaltzerakoan, erantzun berdina jaso nuen: zer da hezkidetza? Nire inguruko ikaskideek, gradua amaitzear daudela duten ezjakintasuna eta ignorantzia ikusterakoan, ikastetxe barruan berdina gertatzen ote zen aztertzeke grina sortu zitzaidan, formazioa hobetuz doan ala ez ikusteko.

Horregatik, lan honen bigarren helburua, unibertsitateko ikasle-talde batek eta ikastetxeko irakasle-talde batek hezkidetzaren inguruan dituzten ezagutzak eta jarrerak aztertzea da. Honetarako, metodologia kuantitatiboaz baliatuz, galdetegi bat luzatu zaie. Lana amaitzerakoan irakasleak eta irakasle-taldeak ezkutuko curriculumaren barneko sexismoa identifikatzeko zailtasunak dituztela ikusi da, ez ordea, curriculum esplizitukoa, kontzienteagoa dena. Hala ere, guztiek aldaketa hezkidetzilearekiko interesa eta hausnarketarako prestutasuna adierazten dute. Bestalde, ikasle-taldeak hezkidetzaren inguruko ezagutza maila altuagoa erakutsi du, hortaz, belaunaldi berrien hezkidetzaren inguruko formazioa hobetuz doala esan daiteke.

## **1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala:**

### **1.1. Eskola segregatutik eskola mistora**

XIX. mendean, hezkuntzaren garapenerako lehenengo pausuak eman ziren. 1812. urtetik aurrera, Cadizeko Gorteetan hurrek hezkuntza jasotzeko beharra finkatzen hasi zen baina emakumeak planteamendu honetatik kanpo geratu ziren. Garaiko hezkuntza legeek, hurrek barneratu beharreko edukiak eta hezkuntza mota zehaztu zituzten, betiere generoz berezituak. Emakumeek atal propioa zuten: etxeko lanak, otoitzak eta kasu berezietan irakurketa. Mende amaieran, mugimendu feministek eta garairako emakume aurreratu batzuek, hezkuntza bateratua abian jartzeko beharra azaleratu zuten, emakumeek gizonen hezkuntza eredu berdina jasotzeko zuten eskubidea aldarrikatuz. (Subirats, 1994)

Hala ere, Estebanez eta Gonzálezek (1988) azaltzen duten moduan, eskola segregatuaren ideia Elizarengandik oso babestua zegoen eta beraz, XX. mendearen hasieran, praktika hezkidetzailleak eskasak izan ziren. Errepublika garaia izan zen, eskola mistoaren esperimendazio periodoa. Garai honetan, hezkuntzak berrikuntza saiakera batzuk bizi izan zituen. Benedik (2012) aipatzen duen bezala, parlamentu errepublikanoan hezkuntza eta Elizaren inguruko debateak zabaldu ziren eta bertan, eskola mistoaren planteamendua nabarmentzen zen. Bestalde, nahiz eta eredu berri honen legezko inposaketa ezarri, erreformen prozesuak geldoak eta zailak ziren, instituzio pribatuak medio zirelarik. Eskola mistoaren inplementazioa guztiz geldiarazi zen, 1933.urtean gobernu kontserbadore bat boterera heldu zenean.

Gerra Zibilaren ostean, Eliza hezkuntza ereduaren barne txertatu zen berriro eta diktadurak eskola mistoaren aukera guztiak debekatu zituen. 70. hamarkadan, behin Frankismoa pasata, eskola mistoak berriro ere zabaltzen hasi ziren baina debate pedagogikoak ez zeuden hezkidetzan edo genero berdintasunean zentratuak. Eskola mistoen planteamendua, gizabanakoaren aukera berdintasuna lortzera bideratzen zen baina ez zen generoaren aldetik tratatu beharreko desberdintasunik ikusten eta egotekotan, ezaugarri naturalei atxikitzen zitzaizkien. Sexuen arteko berdintasuna, beraz, ziurtzat ematen zen. (Subirats, 1994)

Horrela, Revueltak (2017) azaltzen duen moduan, emakumeek gizonen hezkuntza jasotzera pasatu ziren: eduki, ebaluazio, metodo edota proba berdinak. Gizonen hezkuntza eredia erreferentetzat hartu zuten berriro, hau unibertsala balitz moduan. Baina eskola mistoaren gabeziak, erraz hasi ziren agertzen.

Irakasleria (gehiengoa emakumea) izan zen honetaz ohartu zen lehenengotarikoa: edukietan zegoen emakumeen gabezia, espazioen okupazioen desoreka, genero marka zuten balore intelektual eta pertsonalak ... hots, emakumeengan gabeziak handiak ziren. Hortaz, argi geratu zen, eskola mistoak ez zuela aukera berdintasuna bermatzen eta sexismoa behin ere eskola barruan ziharduela baina oraingo honetan, detektatzeko modu zailago batean.

Estebanez eta Gonzálezek (1988) eskola mistoak irakasleriarengan sortu dituen mito faltsuei egiten dizkiete erreferentzia. Hainbat eta hainbat irakaslek ez dute ikastetxeetan sexismorik ikusten. Hau, eskola mistoak eskaini eta itsu bihurtzen gaituen estalki gordinari esker izan omen da. Emakumeek gizonen ikasgai, eduki, ordu, proba ... berdinak jasotzen badituzte, nola egongo da ba sexismoa eskolan?

Ba egon badago eta hau, aurreiritzi sexisten bidez transmititzen du eskola mistoak, zehazki bi modutan. Lehenengoak, eskolak generoaren arabera transmititzen dituen pauso eta arauetan du oinarria; mutilek ez dute negarrik egiten, neskek gauza hauek egitea ez dago ondo ... Bigarrenak, eredu maskulinoaren subiranotasunean datza. Hau da, eskola mistoak, neskak, mutilen hezkuntzara egokitzea behartzen ditu, hauen balore eta izate sistema bere egitera. Baina bien artean ez dago inolako fusiorik, mutilek ez dutelako balio sistema femeninoa berenganatu beharrik. Honek, desberdintasuna eragiten du, eskolako esparru ia guztietan. (Estebanez eta Gonzalez, 1988)

## **1.2. Eskola hezkidetzaila**

Guzti honen aurrean, hezkidetzak dugu. Simonek (2008) hezkidetzak, eskolan erreproduzitzen den sexismoarekin amaitzeko, genero ikuspegiaz baliatzen den metodologia dela dio. Autore honen aburuz, hezkidetzak bete beharreko hiru zeregin ditu: sexismoa detektatzea eta azaleratzea, berdintasunerako hezkuntza erabiltzea (L.I.C), eta espazio desberdinetan orekatutako errepresentazioa bermatzea. Autore honek zera dio, nesken eta mutilen hezkuntzak, ez duela hauen artean dagoen desberdintasun soziala kontuan hartzen, eta berdintasuna lortzeko, existitzen den eta ezarrita dagoen desberdintasun sozialetik abiatu beharra dagoela. Horrela, bakoitzak beharrezko dituen beharizantetara egokitzeko. Berdintasuna, helburua izan behar da eta ez abiapuntua. (Simon, 2003)

Bonalek (1997) honela definitzen ditu eskola hezkidetzailaren osagaiak:

- Baloreak: eskola, genero estereotipoak eta hauen hierarkizazioa deuseztatzea zuzendutako instituzio gisa.

- Arauak: talde bakoitzaren beharrianekiko arreta, aniztasun kulturalarekiko arreta eta desberdintasunarekiko kontrola.
- Zilegitasunak: Eskolak desberdintasun sozial eta kulturalak erreproduzitzen ditu eta androzentrismo kulturala bermatzen du.
- Ezagutza enpirikoa: ezagutza soziologikoak, diskriminazio sexistak hartzen dituen formen eta talde sexual bakoitzak dituen berezitasunen ezagutzak.

Tomék (2011) irakasleen egunerokotasuneko praktikei arreta jartzearen beharra azpimarratzen du. Sexismoa azalerazteko, egunero burutzen ditugun ekintza edo jarrera sexistak identifikatu behar ditugu gure ongizate sozial eta pertsonala bermatzeko. Hezkidetzaren funtsezko oinarria da hau.

### **1.3. Sexismoaren transmisio erak**

Asko dira sexismoak, bizirauteko erabiltzen dituen mekanismoak. Hezkuntza, honen transmisiorako, bi bide ezberdinez baliatzen da; alde batetik, curriculum esplizitua edo azaleko curriculum eta bestetik, curriculum inplizitua edo ezkutuko curriculum daukagu. Lehenengoak, ikasketa eta lanbideek duten genero markari eta curriculumaren programaketan edota testuliburuetan islatzen den sexismoari egiten dio erreferentzia, besteak beste. Bigarrenak, berriz, irakasleriaren jarreraren eta gelako interakzioen bidez transmititzen diren genero estereotipoak barnebiltzen ditu. (Bonal, 1997).

Aurrekoari lotuta, Santos-ek (1996-1997) honela definitzen du eskolako curriculum ezkutua; inkontzienteki eta jendarteko kultura hegemonikoari eusteko asmotan, instituzioetan estrukturalki ezartzen diren arau, jarrera, itxaropen, sinesmen, harreman, hizkera edo praktikak. Curriculum esplizitua aldiz, planifikazio kontzienteari dagokio. Eskola, jendartearen erreproduzio sozial, ekonomiko eta kulturala dela azpimarratzen du.

#### **1.3.1. Ezkutuko curriculum**

Torres (1991) -k esaten duen moduan, ikasle taldearentzat askoz ere garrantzitsuagoa da irakaslearen itxaropenak betetzea, ikasketa edukiak ulertzea baino. Hau da, ikasleak, irakasleak ustez egingo duen ebaluaziora egokitzeko ahaleginak egiten ditu, ikaskuntza prozesuaren xede nagusia alde batera utziz. Guzti honek, ezkutuko curriculumaren bidezko sexismo transmisioarekin du lotura. Autore honen aburuz, nahiz eta sexismoaren igorpena irakasleria osoaren konspirazio maltzurra ez izan, jendartean dauden botere harremanak eskolan txertatzen dira, adibidez, nesken eta mutilengan ditugun itxaropen akademiko edo pertsonal desberdinak.

Gainera, fenomeno hau ez da soilik maila akademikora mugatzen. Pigmalion efektuak frogatzen duen moduan, ikasleak bere identitatea inguruko pertsonen iragarpenen gainean eraikitzen du. Hortaz, gure aurreiritziak eta hauen islak, ikasleen etorkizuneko jarrerren bideratzaile izan daitezke. (Merton, 1968)

Aurreiritzi horiek azaleratzeko modu bat, erabiltzen dugun hizkuntza da. Bengoecheak (2003) pertsonen identitatearen eraikuntzan hizkuntzak duen garrantzia nabarmentzen du. Hau, ia jendarte guztietan, gutxienez bi norabideetan banatzen da: hizkuntza maskulinoa eta hizkuntza femeninoa. Haurrek, hizkuntza eredu hauetatik abiatuz sortzen dute haien genero identitatea. Batetik, sexuaren arabera erabiltzen ditugun hitz-adjektibo edo espresioak daude. Bonalen (1997) arabera, aurretik aipatutako itxaropen berezituak azaleratzeko modu bat, haurrak deskribatzeko erabiltzen ditugun adjektiboak dira. Mutilentzako, ausart, independente, agresibo, energiadun edota leial bezalako hitzak erabiltzen ditugu. Neskentzako berriz, ordenatua, pasibo edota kurtsi bezalako adjektiboak. Gainera, nahiz eta irakasleriak neska eta mutilei tratu bera ematen diela esan, jarrera zehatz batzuk justifikatzeko desberdintze sexual hauetara jotzen du maiz.

Bestetik, diskurtsoetan aipatzen ditugun hitzen erabilera eta hizkuntzek duten konnotazio sexista dago. Adibidez, giz- erroaren erabilera generikoa (gizon, gizaki, gizarte). Hau, historiako fenomenoak azaltzerako orduan gerta daiteke eta emakumeak, munduko parte-hartzaile moduan baztertu egiten ditu. Anaia hitza ere, generikoki erabiltzen da kasu askotan: anaitasuna, anaikidea, anaikorra ... Haratago joanda, neska/emakume/atso hitzak irain moduan erabiltzeak ere sexismoa suposatzen du: "Atso kakalariak" "Neskatxa bat zara" ... Gure egunerokotasunean bizi ditugun hizkuntzaren erabilera hauek sexismoaren transmisio hutsak dira eta askotan, irakasleak ez dira horien kontziente. (Emakunde, 2008)

Hala ere, Bengoechearen (2003) aburuz estilo femenino eta maskulinoa, hizkuntzaz haratago doa. Ikusi den moduan, mutilek, ez dute edozein gaietan parte-hartzeko interesik, soilik haien interesekoak direnetan. Horregatik, sarritan, irakasleek mutilak gaira erakartzeko ahaleginak egiten dituzte, esfortzua kolektibo maskulinora bideratuz. Gainera, ez dituzte mutilak gai "femeninoetara" erakartzeko ahaleginik egiten, haien errefusaren beldur direlako. Bestetik, frogatua dago mutilen parte hartzea neskena baino handiagoa eta nabarmenagoa dela. Irakasleek, mutilek emandako "lekuz kanpoko" erantzunak onartzen dituzte, neskenak salatzen dituzten bitartean.

Ez hori bakarrik, lekuz kanpoko erantzun horien bidez mutilek lortzen duten atentzioari esker, errazago egiten zaie hurrengo batean hitza hartzea, eta irakaslea honen konplize



bihurtzen da honi txanda emanaz. Hala ere, nahiz eta egindako esperimentuetan atentzioa erdi eta erdi banatu dela frogatu, irakasleek neskei arreta gehiago eskaintzen dietela azpimarratzen dute. Bestalde, neskei, “bai”, “ez” erantzun bidezko edo jada jakin beharreko galderak egiten zaizkie, mutilei bidalitako galderak zabalagoak eta abstraktuagoak diren bitartean. (Bengoechea, 2003)

Honetaz gain, diziplina-zuzenketak sexu bidez berezituak diren beste aspektu bat dela azpimarratu beharra dago. Irakasleriak gauzatzen dituen botere harremanak sexuaren arabera desberdintzen dira. Mutilek zigor fisikoa, biolentzia berbala eta neurri hertsatzaile gehiago pairatzen dituzte. Nesken kasuan, berenganatutako rol otzan eta pasiboak ez du diziplina kontrol hori beharrezko egiten. Dena den, generoaren baitan dauden jokaeretatik desbideratzen diren haurrei, diziplinazko zuzenketak ere ezartzen zaizkie; jokaera “femeninoak” dituzten mutilei eta jokaera “maskulinoak” dituzten neskei, alegia. (Bonald, 1997). Subirats eta Brulleten (1988, Bonald, 1997an aipatuak) ikerlanak, aurretik azaldutakoa frogatzen du ere. Azterlan honek ondorioztatutakoa honakoa da: irakasleak mutilekin interakzio maila altuagoa du neskekin baino. Zehazki, mutilei zuzendutako 100 hitzetik, neskei 74 hitz bidaltzen zaizkie. Bestalde, emakume irakasleek gizonak baino desberdintze sexista gehiago burutzen dituzte, eta hau, mutilen jarrerari jartzen dioten arreta handiari atxikitzen zaio.

Gutxi balitz, Stanworthek (Bonald, 1997an aipatua) egindako ikerketa batean, irakasleriak sexuaren bidez desberdintutako taldekatzeak egiten dituela ondorioztatzen du. Honek, generoa klasifikatzeko irizpide bihurtzen du. Bonald (1997) generoaren hierarkizazioaren adibide den beste fenomeno bat aipatzen du: irakasleriak, mutilen izenak neskenak baino gehiago gogoratzen eta erabiltzen ditu. Fenomeno hau, neskek eskolan bizi duten diskriminazioaren eredu sotil baina aldi berean argia da.

### **1.3.2. Azaleko curriculum**

Bonald (1997) arabera, sexismoaren islarik esplizituena, testuliburuetan eta programazio curricularrean topatu daiteke. Gizarte Zientzietako curriculumean emakumeen gabezia ia absolutua da. Halaber, emakumeren bat agertzekotan, eredu maskulinora egokitzen diren pertsonaiak izaten dira. Beste modu batean esanda, soilik eremu publikoan zeregin garrantzitsuren bat duten emakumeak dute tokia. Emakumeek historian izandako bizitza ereduak, orokorrean eremu pribatura esleitutakoa, testu eta erreferentzia guztietatik erabat baztertuta geratzen da. Historian, gerrateak, botere gudak eta jendartearen produkzio ereduak dira protagonistak baina jendarteak bizirauteko

egunerokotasunean erreproduzitzen dituen ereduak at geratzen dira: zaintza, elikadura, harreman afektiboak, etab. Hots, emakumeek historiako jendarteetan izan duten zeregina eta bizimodua.

Testuliburuek jendarte maskulinoa islatzen dute. Hau da, hauetan agertzen diren irudiak, adibideak, aipamenak, ekintzak ... gizoni egiten diete erreferentzia. Horrela, mundua gizonena eta gizonentzako egina dagoenaren ustea txikitatik barneratzen dugu. Eskolak, emakumea mundu maskulino horretan parte hartzera gonbidatzen du. (Santos, 1996-1997). XX. mendearen erdialdean, Simone de Beauvoir-rek (1949), argi eta garbi utzi zuen: gizateria maskulinoa da eta emakumeak funtsezkoaren (gizona) aurrean erlatibotasuna adierazten du, bere existentzia ezin daiteke gizon barik konfirmatu; gizona da “bata” eta emakumea da “bestea”.

Bestalde, aurretik aipaturiko ikasketen genero marka daukagu. Aristizabal-ek (2015) dioen moduan, nahiz eta orokorrean nesken kalifikazioak mutilenak baino hobeak izan, hauek, ez dute gaur egun gorenen dauden ikasketa zientifiko eta teknologikoetara jotzen, soilik %31a alegia. Dena den, urteekin batera, maskulinizatuta dauden ikasketetan matrikulatzen diren nesken kopurua handitu egin da (esate baterako, Gorputz Hezkuntzan), feminizaturiko ikasketetan matrikulatzen diren mutilen tasak berdin jarraitzen duten bitartean, adibidez, Haur Hezkuntzan. Autore honen aburuz, boterezko eta baliozko eredia gizonetzkoen eredia denez, emakumeek gizonetzko mundu boteretsu eta zilegi horren parte izateko asmotan honetara jotzea ulergarria izan daiteke. Aldiz, feminizaturiko lanbideak soilik emakumezkoenak izateagatik gutxietsita eta bigarren plano batean daudenez (Santos, 1996-1997), gizonek ez dituzte hautu moduan ikusten.

Genero markaz bereizitako lanbide hautu hauek, ez dira kasualitate hutsa. Bonalek (1997) fenomeno hau azaltzeko bi arrazoi proposatzen ditu: batetik, komunikabideen eta familiaren influentzia eta bestetik, irakasleriak ebaluatzerako orduan islatzen dituen itzaropen eta iragarpenak, irakasle-ikasle interakzioak eta eskola antolakuntza.

#### **1.4. Irakasleen jarrera aldaketa hezkidetzaillearekiko**

Bonalen (1997) arabera, irakasleriak hezkidetzaren aurrean duen jarrerarik esanguratsuenak honako hauek dira:

- Irakasleria berdintasun neurriak ezartzeko prest dago, hauen objektiboak eta bitartekoak esplizitoki azaltzen ez direnean.
- Irakasleriak estereotipoen existentzia onartzen du baina ez du uste eskolak honako hauek erreproduzitzen dituenik.
- Irakasleriak diskriminazio positiboa (nesken posizio sexuala hobetzea nahiz eta mutilena kaltetu) baztertzen du.
- Irakasleriak erabaki pertsonaletan sartzen diren neurrien kontra azaltzen da, ez baitu uste hauek baldintzatuta daudenik.
- Irakasleriak ez du talde sexual bakoitzak atentzio desberdina behar duenik ikusten eta honen gaineko praktikak errefusatzeko dituenik.
- Emakumeek gizonen baino jarrera positiboagoa dute aldaketa hezkidetzailleekiko.

Orokorrean, zera baieztatzen du: irakasleria, egiten duenagatik baino, egiten ez duenagatik dela sexista. Hau da, aldaketarekiko jartzen duen erresistentziak bihurtzen dituela bere praktikak sexistak.

Honekin batera, Romero eta Lugok (2014) Sevillako 5 institutueta irakasleriari buruz eginiko azterlanean, irakasleek aldaketa hezkidetzailleak, kaltegarriak baino, oso onuragarriak izan daitezkeenaren ustea dutela azpimarratzen dute, bai ikasleentzako bai irakasleentzako. Irakasleriak, eskolak mantentzen dituen desberdintasun elementu batzuk antzematen ditu, hala nola, testu liburuak, emakumeen esperientzien trataera edota espazioa. Guzti honek, irakasleriak aldaketa hezkidetzaillearekiko, duen prestutasunaren seinale da. Dena den, aldaketa hauek praktika didaktikoetara eramaterakoan, irakasleriaren jarrera ez da berdintasuna zentzu globalean planteatzerakoan bezain zehatza. Gainera, ikasleriaren arteko interakzioetan sexismoa identifikatzen dutela diote baina ez ordea irakasle-ikasle interakzioetan. Haien aburuz, irakasle-ikasle interakzioak berdintasun hutsean ematen dira. Azkenik, emakume irakasleek, diskriminazioa errazago antzematen dute eta prestutasun handiagoa erakusten dute praktika hezkidetzailleak eskolan txertatzeko.

Beste alde batetik, Aristizabalek (2011) Gasteizko Irakasle Eskolan dauden ikasleei eginiko ikerketan ateratako emaitzek 20 urteetan ikasleen formazioa ez dela aldatu frogatzen dute, izan ere, gehiengoak berdintasuna jada bermatuta dagoela pentsatzen du. Curriculum esplizituko sexismo formak, adibidez, lanbideen genero-marka edo curriculum ezkutua berrukoak esate baterako, genero - rola edo androzentrismoa ez

dituzte identifikatzen. Orokorrean, ez dute praktika aldiko ikastetxeetan sexismorik antzematen eta honi aurre egiteko ezjakintasuna azaltzen dute, formazioaren beharra azpimarratuz.

## **2. Atal enpirikoa**

### **2.1. Metodologia**

Hernandez-ek (2018) azaltzen duen bezala, metodologia da ikerketa lanaren gidaria. Honetan, ikerketa aurrera eramateko beharrezko pausoak zehazten dira; galdera-motak, ezaugarriak, helburuak, hipotesiak ... Metodologiak ikerlariak jarraitu beharreko bidea definitzen du.

Ikerketa hau aurrera eramateko, metodologia kualitatiboa eta kuantitatiboa erabili ditut. Definitutako helburu bakoitzak norabide desberdin bat duenez, hiru teknika ezberdinez baliatu naiz: elkarrizketa, behaketa parte-hartzailea eta galdetegia. Batetik, metodologia parte-hartzailearen barruan behaketa parte-hartzailea eta elkarrizketa teknikak eta bestetik, metodologia kuantitatiboaren barruan galdetegi teknika. (Bujan, 2001)

Bi metodologia hauen fusioa izango da helburu desberdinak lortzeko bidea. Lagina handia denean, esate baterako galdetegian, denbora aurrezteko eta emaitza sendoagoak lortzeko metodologia kuantitatiboa litzateke aukerarik onena. Aldiz, tutoreari eginiko elkarrizketan eta behaketan, metodologia kualitatiboaz baliatu beharko naiz. Izan ere, honen bidez bilatzen dena, irakaslearen pentsaera subjektiboa da, ez datu solido eta errepikatzailak, metodologia kuantitatiboaren ezaugarri direnak. (Pita eta Pétergas, 2002)

### **2.2. Helburuak**

1. Ikastetxe bateko irakasle batek ezkutuko curriculumaren barruan dagoen sexismoaz kontziente den eta praktikan sexismo hori erreproduzitzen duen aztertzea.
2. Ikastetxe bateko irakasle talde batek eta irakasle izateko formatzen ari diren ikasle talde batek hezkidetzaren inguruan dituzten ezagutzak eta jarrerak identifikatzea.

### **2.3. Hipotesiak**

#### **1. Helburua**

**1.1.** Irakasleak curriculum esplizituaren barruan dauden sexismo praktikez kontziente da baina curriculum ezkutukoak identifikatzeko zailtasunak ditu.

**1.2.** Irakasleak curriculum ezkutuko sexismo praktika gehienak aurrera eramaten ditu bere egunerokotasunean.

#### **2. Helburua**

**2.1.** Ikastetxeko irakasle taldeak, Hezkuntza graduren bat ikasten ari den ikasle taldeak baino ezagutza maila txikiagoa du hezkidetzaren inguruan eta honekiko duen jarrera ezkorragoa da.

#### **2.4. Parte-hartzaileak**

Ikerketa honetan hainbat subjektuk hartu dute parte. Bi atal daude zeintzuetan laginak desberdinak diren. Ikerketa laneko lehenengo atalean, inplikaturako subjektua, Bizkaiko ikastetxe bateko 6. mailako tutorea izan da, hots, Practicum IIIan esleitu zaidan irakasle tutorea. Testuinguru honetan, irakaslea izan da behaketa objektu nagusia, behaketa parte-hartzailea eta elkarrizketaren bidez, honen jarrerak eta ikasleekiko interakzioak aztertu baitituz.

Bigarren ataleko parte-hartzaileak bi taldetan banatzen dira. Batetik, ikastetxe bateko 20 irakaslek osatzen duten taldea dago. Bigarren taldea, aldiz, Euskal Herriko Irakasle Eskoletako, 4.mailako 20 ikaslek osatuko dute. Atal honetan, galdetegi bat erabiliz, talde bakoitzak hezkidetzaren inguruan duen ezagutza maila eta jarrera aztertuko da.

#### **2.5. Aldagaiak eta neurtzeko tresnak**

Lehenengo aldagaiak, irakasleriak inkontzienteki burutzen dituen praktikei egiten die erreferentzia. Nahiz eta hezkidetzaren inguruko ideia argi batzuk izan, curriculum ezkutuaren parte diren jarrera eta interakzioak ikasgelan zelan eta zer neurritan azaltzen diren ikustea da xedea. Beraz, bi teknika desberdin inplementatzea beharrezkoa da, hots, behaketa parte-hartzailea eta elkarrizketa.

Behaketarako, behaketa-orri bat erabili dut (1. eranskina). Behaketa-orria, ezkutuko curriculumaren bidez sexismoa transmititzeko moduen arabera banatuta dago; hizkuntza, interakzioak eta antolakuntza. Guztira 16 behaketa-irizpide aztertu dituz. Behaketa-orria nik neuk “ad hoc” diseinatutakoa da, Subirats eta Tomérenean (2010) oinarrituz.

Bestetik, behatutako subjektuari (irakasleari) elkarrizketa bat egin diot (2.eranskina). Elkarrizketa, estrukturatua izan da; hau da, galderen ordena zehatza eta aldaezina izan da eta elkarrizketaren zentzua ez da elkarrizketatuak emandako erantzunaren arabera bideratu. (Guerrero, 2016). Elkarrizketak 18 galdera ditu, hiru multzotan banatuak. Lehenik eta behin, hezkidetzari buruzko ezagutza orokorrak aztertzeko galderak daude. Ondoren, curriculum esplizituko sexismo praktikekin lotutakoak eta azkenik, ezkutuko curriculumaren sexismoari erreferentzia egiten diotenak. Horrela, irakaslearen erantzunak egindako praktikekin koherentzia mantentzen duten ala ez ikusi dut.

Aldiz, bigarren aldagaia aztertzeko, galdetegiaren teknika hautatu dut. Hezkuntzako graduak kurtsatzen dituen ikasle talde batek eta jada lanean dagoen irakasle talde batek hezkidetzaren inguruan dituen ezagutzak eta jarrerak konparatzea da helburua. Lagina 40 subjektukoa izanda galdetegiaren teknika aproposa dela deritzot. Gainera, datuen bilketa kuantitatiborako, teknika oso erabilgarria da. (Guerrero, 2016).

Galdetegian datu pertsonalak biltzeko galderak daude batetik, adibidez, ea hezkidetzaren formaziorik jaso duten ala ez. Bestetik, 31 baieztapenez osaturiko zerrenda bat ageri da non hartzaileek haien adostasuna edo desadostasuna adierazi duten. Iritzirik izan ezean, “ez dakit” zutabea markatzeko aukera ere badago. Ikastetxeko irakasle taldeari, erraztasunagatik, galdetegia eskuz pasatu zaio.

Berriz, unibertsitateko ikasleriari galdetegia helarazteko, Google Inprimakiak erreminta teknologikoa erabili eta hau, WhatsApp bidez zabaldu zaie. Irakasleriari (3. eranskina) zein ikasleri (4. eranskina) eginiko galderak berdinak dira, hasierakoak izan ezik, non datu pertsonalak eskatzen diren.

ALDAGAIA	HELBURUA	HIPOTESIA	PARTE-HARTZAILEAK	TRESNA
Sexismoa ezkutuko curriculumean	1. Helburua	1.1. Hipotesia	Irakaslea	BEHAKETA PARTE-HARTZAILEA
		1.2. Hipotesia		ELKARRIZKETA
Hezkidetzaren inguruko aurreiritziak eta jarrerak	2. Helburua	2.1. Hipotesia	Ikastetxe bateko irakasle taldea	GALDETEGIA
			Irakasle Eskoletako irakasle taldea	

Taula 1 - Aldagaien eta tresnen arteko erlazioa

## 2.6 Diseinua eta prozedura

Atal honetan, aurretik zehazturiko guztia zelan egituratuko dudana azalduko dut. Lehenik eta behin, aipatzekoa da GAL aren inplementazioa Practicum III a burutzen dudana bitartean egin dudala eta ikerketa fase desberdinak dituela. Lehenengoan, 25 egunez, behaketa parte hartzailea egin dut, denbora gehien behar duen teknika baita. Horretarako, egunero koaderno batean, irakaslearen saioetan behaketa fitxa jarraituz, datuak apuntatzen joan naiz. Ondoren, koadernoan apuntatutakoa behaketa-orrietara pasatu dut. Bigarrena, irakasleari burutu beharreko elkarrizketa izan da, egonaldiaren amaierako egunetan burutu dudana, hots, behaketa ez baldintzatzeko. Ondorioz, azkeneko asteko egun bat aukeratu eta irakasleari elkarrizketa egin diot grabagailu baten bitartez. Horren ostean, grabatutakoa literalki transkribatu dut (5. eranskina). Azkena galdetegiaren fasea izango da. Hau burutzeko apirileko hilabetea erabili dut. Ikastetxean,

galdetgia inprimatuta pasatu dut. Unibertsitateko ikasleriari aldiz, Google Inprimakiak baliabide teknologikoa erabiliz inkesta sortu eta WhatsApp bidez bidali diet. Behin lagin kopurua lortuta, programa automatikoki itxi da bildutako datuak gordez.

## **2.7. Datuen analisia**

Datuen analisia burutzeko bi baliabide erabili ditut. Batetik, Microsoft Excel 2010 programa eta bestetik, Google Inprimakiak baliabide digitala. Behaketako eta ikastetxeko irakasle taldeari pasatutako galdetegiko datuak analizatzeko, Excel erabiliko dut. Izan ere, taula edota grafiko desberdinak modu erraz batean sortzeko aukera ematen duen programa da. Beste alde batetik, Unibertsitateko ikasle taldeari bidalitako galdetgia Google Inprimakiak erabiliz egin dudanez programa hau beraz baliatu naiz. Izan ere, programak berak galdera bakoitzaren grafikoa sortzen du automatikoki.

## **3. Emaitzak eta ondorioak**

### **3.1. Emaitzak**

#### **1.1 HIPOTESIA: Irakasleak curriculum esplizituaren barruan dauden sexismo praktikez kontziente da baina curriculum ezkutukoak identifikatzeko zailtasunak ditu.**

Lehenengo hipotesiko datuak hurrengo ataletan banatuko dira: ezagutza orokorrak, curriculum esplizitua eta ezkutuko curriculum.

#### **1. Ezagutza orokorrak**

Atal honetan hurrengo gaiak aztertuko dira: berdintasuna eta hezkidetzaren formazioa eta eskola. Hasteko, irakasleak berdintasuna oraindik bermatuta ez dagoela pentsatzen duela esan beharra dago. Bere ustez, berdintasuna bermatuta egon beharko litzateke baina errealitateak ez du hori erakusten (1. galdera).

Bestetik, irakaslearen usteetan, hezkidetzaren egin beharra zera da: umeei emakume eta gizonen arteko ezberdintasunetik abiatuz, berdintasun sozialaren beharra azaltzea. Hala ere, bere aburuz, ezberdintasun ukaezin horiek, fisikoak, psikologikoak zein ebolutiboak dira (2.galdera).

*“Nik pentsatzen dut neska bat eta mutil bat ezberdinak direla, ezberdinak direla bai fisikoki, bai psikologikoki eta bai ebolutiboki.”*

Formazioari dagokionez, irakasleak, hezkidetzaren inguruko formaziorik jaso ez duela onartzen du, eta hau esaterakoan, “zoritarrez” hitza aipatzen du (3. galdera). Aldiz, formazioa beharrezkoa den ala ez galdetzerakoan, beharrezkoa dela baieztatzen du. Bere iritziz, emakumeak eta gizonak matxistak gara eta beraz, hausnarketa handiak beharrezkoak ditugu (4. galdera).

Eskolari erreferentzia egiterakoan, sexismoa zeharkako modu batean ageri dela baina eskola publikoa hori gainditzeko bidean dagoela baieztatzen du (5. galdera). Eskolan aurki daitezkeen adibide sexistak aipatzerakoan, curriculum esplizituari egiten dio erreferentzia. Sexismo forma horien jatorriaren inguruko zalantzak azaltzen ditu eta berriro ere, formazioaren beharrari egiten dio erreferentzia (6.galdera).

*“Normalean eskola garbitzen dutenak neskak dira. Eskola gehienetan zuzendaritza karguak hartzen dutenak mutilak dira. Ez dakit sexista den ala ez baina irakasleonean artean gehienak neskak dira. (...) (...) ez dakit zergatik mutilen artean ez da erakargarria lanpostu hau ezta? Hori igual beste sexista puntoren bat da, ez dakit ...”*

## **2. Curriculum esplizitua**

Curriculum esplizituaren barruan landuko diren gaiak, lanbideen genero marka eta testuliburuetakoa sexismoa dira. Alor teknologikoan dagoen emakume kopuru txikiari buruz galdetzerakoan, irakasleak, kulturalki gizonen lekua izan dela esaten du eta tradizioari atxikitzen dio jatorria. Gure eskema mentalean lanbideen genero marka existitzen dela onartzen du. Bestalde, fenomeno honen agerpena, eskola edo lantegiaren tamainarekin proportzionala dela aipatzen du (7.galdera).

*“(...) irudikatzen baduzu zientifiko bat ba burura etortzen zaizu mutil erdi zoro bat hor sartuta eguzki argia ikusi gabe.(...) (...) nik pentsatzen dut lantegi handietan edo ikas zentro handietan nabariagoa dela.”*

Haur Hezkuntzako emakume kopuru handiari buruz galdetzerakoan, zalantzak azaltzen ditu. Haur Hezkuntzako gizonak ezagutzen dituela aipatzen du, bere lana primeran egiten dutenak. Berriro ere, kulturari eta tradizioari atxikitzen dio jatorria eta emakumea umeekin lotu izan dugula beti aipatzen du. Hausnartzeko puntu bat dela dio (8. galdera). Testuliburuari dagokionez, historiak emakumeak ezkutatu dituela onartzen du. Honen arrazoia, historia betidanik gizonak (boteredunek) idatzi dutela dela dio. Gaur egungo hausnarketa maila eta iraganekoa konparatzen ditu, oraingoa positiboki goraiatuz (9. galdera).

*“(...) baina lehen ez da gaur egungo egoera, hausnarketa horretan sartuta daudela eta ezkutuan egon direla baietz esan ahal da ... Rotundamente!”*

Testuliburuetakoa marrazki, adibide edo testuei buruz galdetzerakoan, gaiak apur bat aldatzen du. Sexismoa zer den eta zer ez den esatea zaila dela dio. Hala ere, ezkutuko sexismo formak badaudela onartzen du baina adibide bat jartzea kostatzen zaio. Bestalde, sexismo forma sotil horiek umeengan islatzen ditu eta ez irakasleengan (10.galdera).



### 3. Ezkutuko curriculuma

Azkeneko atal honetan, hizkuntza sexista, genero rola, adibide gisa jarritako gaiak, zuzendutako galdera motak, ezarritako zigorrak, lekuz kanpoko jarrerai emandako erantzuna eta taldekatze misto edo ez mistoen gaien inguruko emaitzak aurkeztuko dira. Hizkuntzari dagokionez, irakasleak sexista dela onartzen du momentu oro. Honen jatorria, hizkuntza gizonak idatzi dutenari atxikitzen dio. Erabilitako hitzek maskulinoari erreferentzia egiten diotela aipatzen du. (11. galdera).

Bestalde, hizkuntzaren erabilera aldatzea zaila dela aipatzen du, oso barneratuta daukagulako. Beste modu batean hitz egiterakoan gaitzespen soziala jaso dezakezula ere pentsatzen du (14.galdera).

Genero rola erreparatuz, estereotipoenganako jarrera ezkorra azaltzen du. Ikasleak diren moduan onartzen dituela azaltzen du. Hala ere, berriro ere sexuen arteko ezberdintasun fisikoak, psikologikoak eta ebolutiboak onartzen ditu (12. eta 13. galderak).

Adibide gisa jarritako gaien inguruan hitz egiterakoan, lehenik eta behin, hezkuntzak umeen motibazioa pizteko duen eginbearra azpimarratzen du, lan hau oso zaila dela gehituz. Umeak gurekin konparatuz oso desberdinak direla dio eta motibazio hori ume guztientzat izan behar dela eta ez sexuz berezitua. Lehenengo berak gai orokorrak erabiltzen dituela aipatzen du baina jarraian, batzuetan gai “maskulinoak” (futbola, bideojokoak ...) ere erabili izan dituela onartzen du. Beste alde batetik, galderan agertzen den “gai maskulinoak” aipatzerakoan, galdu egiten dela dio. Hori esateak posizio bat hartzea dela eta bere erantzuna baldintzatu dezakeela uste du (15.galdera).

*“Baina bai mutilena eta neskena, nik erabiltzen ditudan gauzak orokorrak dira. Batzuetan, nahigabe aipatuko ditut, zuk esan duzun moduan, nola esan duzu? Gai maskulinoak.(...) Galdera bera, nik esango nuke gaizki planteatuta dagoela, zer da gai “maskulino” bat? Galdera horrekin ia, zu ere, leku bat hartzen ari zara, posizionamentu bat hartzen ari zara eta baldintzatzen ari zara nire erantzuna”*

Zuzendutako galdera moten inguruan, neska edo mutil izan galdera mota berdinek botatzen dituela uste du irakasleak. Lehenik eta behin berak neskei ez diela galdera sinpleagoak egiten dio baina gero pentsatu baino, hori pentsatu nahi duela dio. Galdera motak zehazteko irizpide bakarra, umeak zailtasun bereziak dituen ala ez dela zehazten du (16.galdera).

Zigorrei dagokionez, irakaslea zigorren kontra azaltzen dela esan beharra dago. Zigorrak jartzen dituenean, jarrera bat zelari bideratu ez dakielako izaten dela dio, ez

umeak zigorra behar duelako. Bere hitzetan, zigorra guk behar dugu, jarrera bati erantzuna emateko gai ez garelako baina umeak ez du behar. Honen ostean, guztiz ezeztatzen du sexuz bereizitako zigorrak jartzen dituela (17. galdera).

Talde misto edo ez mistoei buruz galdetzerakoan, irakasleak, hasieratik, zalantza asko azaltzen ditu. Lehenik eta behin, berak konpentsatzen saiatzen dela baieztatzen du, taldeetan mutil eta neska kopuru berdina egoten. Jarraian, taldeak egiteko generoa kontutan hartzea sexismoa den edo ez galdetzen du. Irakasleak, talde mistoak nahita egitearen inguruko duda asko ditu, ez baitakielako hori sexismoa den edo ez (18.galdera).

*“Ez dakit generoa kontutan hartzea sexismoa dan. (...) Saiatzen naizelako kopuru hori berdina izan behar dela? Nik horri buruzko zalantza asko ditut. (...) (...) ni saiatzen naiz ba zailtasunak hartzia erreferentzia taldeak egiteko. Gerta daiteke, talde batean neskak egotea eta bestean mutilak, eta gaizki sentitzen naiz mutilak bakarri daudelako edo neskak bakarrik daudelako. Orduan saiatzen naiz konpentsatzen, baina konpentsazio hori sexista da? Nahita egiten dudalako? Edo ez da? Saiatzen naizelako ekiditen? Hor dago koska.”*

Guzti honen ondorioz, lehenengo hipotesia baieztatu egin dela esan daiteke. Nahiz eta zergatia edo jatorriari buruzko zalantza asko izan, irakasleak curriculum esplizituaren bidez transmititzen den sexismoaz kontziente da. Ezkutuko curriculumari dagokionez, guztiz onartzen duen sexismo forma bakarra, hizkuntza sexistarena da, gainontzeko guztien gainean kontzientzia falta azalduz.

## **1.2. HIPOTESIA: Irakasleak curriculum ezkutuko sexismo praktika gehienak aurrera eramaten ditu bere egunerokotasunean.**

Hipotesi hau baieztatzeko edo ezeztatzeko bildutako datuak, behaketa-orrian zehaztutako multzoen arabera hiru ataletan banatuta daude. Lehenengo multzoa, hizkuntzaren bidez transmititzen diren sexismo formak dira.

Bigarren taulan ikusten denez, irakasleak hizkuntzaren bidez 18 sexismo forma ezberdin azaleratu ditu 25 egunetan. Gehien burutzen den sexismo forma, adjektibo estereotipatuen erabilera da eta hau neskengan ematen da gehien. Hizkuntza sexistaren erabilera ere nabaria da, proportzioan, asteko hitz edo esamolde sexista bat erabili du. Gutxien ematen den fenomeno, jarrerak justifikatzeko desberdintasun sexualetara jotzea da Gutxien ematen den fenomeno, jarrerak justifikatzeko desberdintasun sexualetara jotzea da.

HIZKUNTZA		TOTALA
Adj. estereotipatua	Mutilak	11
	Neskak	
	4	7
Desberdintasun sexualetara jo	2	2
Hizkuntza sexista	5	5
<b>TOTALA</b>	<b>18</b>	<b>18</b>

Taula 2 - Hizkuntzaren bidez transmititutako sexismo forma kopurua

3. taulan, zehazki, kasu bakoitzean erabilitako hizkuntza formak ikus daitezke. Hauetako bakoitza testuinguru batean emandakoa da, beraz, ez dira hitz solte gisa ulertu behar.

Adjektibo estereotipatuak		Desberdintasun sexualetara jo	Hizkuntza sexista
Mutilak	Neskak	mutilak goriletatik datoz	batzarra
Indartsua	Maja	neskak kariñosagoak dira	nire neska
Tximino	Azkarra		el hombre
Alferra	Listilla		amak zaindu behar zaitu
Astapotroa	Txupiflower		neskak eta gizonak
	Marilinda		
	Listilla		
	Infantilla		

Taula 3 - Sexismoa transmititzeko erabilitako hizkuntza formak

Bigarren multzoan, ikasleekiko interakzioetan irakasleak izandako jarrera eta erantzunak aztertzen dira. Datuak bi ataletan banaturik daude: interakzioen kontabilitatea sexu bidez berezitua (4. taula) eta interakzio batzuk motaren eta sexuaren arabera sailkatuak (5. taula).

INTERAKZIOAK			
	Maskulinoak	Femeninoak	TOTALA
<b>Gaiak</b>	10	4	14
	<b>Mutilak</b>	<b>Neskak</b>	
<b>Lekuz kanpoko jarrerakiko erantzuna</b>	15	23	38
<b>GHn aukeratutako boluntarioak</b>	12	3	15
<b>Izen ahazteak</b>	0	2	2
	<b>Mutilei</b>	<b>Neskei</b>	
<b>Zuzendutako galderak</b>	64	43	107
<b>Ezarrirako zigorrak</b>	16	11	27
<b>Beste generoko jarrerak izateagatik ezarrirako zigorrak</b>	0	0	0
<b>TOTALA</b>	<b>115</b>	<b>86</b>	<b>203</b>

Taula 4 - Interakzio motak sexu bidez banatuak

Laugarren taulan ikusten denez, erregistraturiko interakzio kopurua 201ekoa izan da. Adibide gisa erabilitako gaiak dagokionez, argi eta garbi ikusten da gai "maskulinoen" (futbola, bideojokoak, autoak ...) erabilera dela nabarmen. Lekuz kanpoko jarreraren aurrean 38 erantzun burutu zituen irakasleak eta hauetatik erdia baino gehiago neskei zuzendutakoa izan zen. Bestetik, Gorputz Hezkuntzan (hemendik aurrera GH) aukeratutako boluntarioen gehiengo handia mutilak izan dira. Izen ahazteen kasua ez da asko eman, baina eman denean, nesken izenak izan dira guztiak. Galderei erreparatu eta konparazioa eginez, mutilek jaso dituzte galderen kopururik handiena eta ezarrirako

zigorrekina berdina gertatu da. Azkenik, beste genero bateko jarrerak izateagatik ezarritako zigorrak ez dira eman 25 egunetan.

GAIAK			
Maskulinoak	Zenbat?	Femeninoak	Zenbat?
Bideojokoak	2	Shakira	1
Messi	1	makillajea	1
Maluma	1	jostorratza	1
autoak	1	eskubaloia	1
futbola	4		
matematikak	1		
<b>TOTALA</b>	<b>10</b>	<b>TOTALA</b>	<b>4</b>

Taula 5 - Adibide gisa jarritako gaien zerrenda sexuz bereiztuak

5. taulan, erabilitako gaiak zeintzuk izan diren azaltzen da. Gai “maskulinoen” artean, batzuk errepikatu egiten direla ikus daiteke: futbola (4) eta bideojokoak (2) alegia.

	Zelan?	Mutilak	Neskak	Totala
	<b>Lekuz kanpoko jarreretikiko erantzuna</b>	Errefusatua + txanda	3	2
Errefusatua - txanda		3	6	9
Errefusatua		0	7	7
<b>TOTALA</b>		<b>6</b>	<b>15</b>	<b>21</b>
Salatua + txanda		5	1	6
Salatua - txanda		0	4	4
Salatua		4	3	7
<b>TOTALA</b>		<b>9</b>	<b>8</b>	<b>17</b>
Onartua + txanda		5	2	7
Onartua - txanda		0	0	0
Onartua		7	4	11
<b>TOTALA</b>		<b>12</b>	<b>6</b>	<b>18</b>
<b>TOTALA</b>		<b>27</b>	<b>29</b>	<b>56</b>

Taula 6 - Lekuz kanpoko jarreretikiko erantzun motak sexuen arabera

Seigarren taula honetan, lekuz kanpoko jarrerari irakasleak zer erantzun mota eman dien aztertzen da. Guztiz errefusatutako erantzunen artean, neskenak nabarmentzen dira, gainera, mutilenak errefusatu direnean, gerora txanda eman edo ukatu egin zaie. Nesken artean, gehienak soilik errefusatuak izan dira, gerora, txanda eman edo ukatzeko aukera agertu ez delako. Hala ere, egon denean, hauei txanda ukatzeko tendentzia ageri da. Salatutako jarreraren artean, aipatzeko da, salatu ostean mutilei txanda eman zaiela eta neskei ukatu. Onartuak izan diren lekuz kanpoko jarrerak aztertuz, gehienak mutilenak izan direla ikus daiteke, hauei, kasu gehienetan, berriro ere txanda aitortuz. Azkenik, sexu desberdinei dagokionez, nesken jarrera gehienak errefusa jaso dute eta mutilenak, onarpena.

	MOTAK	Mutilak	Neskak	TOTALA
	<b>Zuzendutako galderak</b>	Bai/Ez - errazak	11	10
Bai/Ez - zailak			2	2
<b>TOTALA</b>		<b>11</b>	<b>12</b>	<b>23</b>
Abstraktuak/Zabalak - errazak		9	8	17
Abstraktuak/Zabalak - zailak		44	23	67
<b>TOTALA</b>		<b>53</b>	<b>31</b>	<b>84</b>
<b>TOTALA</b>	<b>64</b>	<b>43</b>	<b>107</b>	

Taula 7 - Zuzendutako galdera motak sexuen arabera

Ondorengo taulan (Taula 7), zuzendutako galdera motak agertzen dira. Zuzendutako galderen erregistroan, lau mota azter ditzakegu. Agertzen den moduan, mutilei neskei baino galdera gehiago egin zaie. Hauei zuzendutako galderen artean, abstraktuak edo zabalak nabarmentzen dira eta batez ere, zailak (neskei zuzendutakoen ia bikoitza). Neskei zuzendutako galderen artean, aldiz, bai edo ez erantzuteko galderak ageri dira eta hauen artean errazak dira gehiengoak. Hala ere, mota honetako galdera errazen artean mutilak berriro ere nabarmentzen dira.

Ezarritako zigorrak	MOTAK	Mutilak	Neskak	Mutilei nesken jarrera izateagatik	Neskei mutilen jarrera izateagatik	TOTALA
	Fisikoak		0	0	0	0
Berbalak		6	8	0	0	14
Hertsitzaileak		10	2	0	0	12
Elkarrizketa		0	1	0	0	1
<b>TOTALA</b>		<b>16</b>	<b>11</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>27</b>

Taula 8 - Ezarritako zigor motak sexuaren arabera

Zortzigarren taulan, sexuen arabera ezarritako zigor motak ageri dira. Esan beharra dago, erregistro totala 27koa izanik, mutilek jaso dutela zigor kopururik handiena eta gehienetan zigor hertsitzaileak izan direla. Nesken zigor motarik ohikoena zigor berbala izan da eta elkarrizketa gatazka konpontzeko erabili duen momentu bakarra, neskekin izan da. Irakasleak zigor fisikorik ez duela erabili aipatu beharra dago.

Azkenik, antolakuntzaren multzoan, taldekatzeak zelan egin diren aztertzeko irizpideak daude.

	Irakasleak		Ikasleak	
	Misto	Ez misto	Misto	Ez misto
<b>Gela arruntean</b>	4	1	0	0
<b>GHn</b>	0	0	2	2
<b>TOTALA</b>	<b>4</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>2</b>

Taula 9 - Taldekatzeak egiteko moduak

Bederatzigarren taulan, bi irizpideak elkarrekin daude ikusgai. Lehenik eta behin, irakasleak gela arruntean eginiko taldekatzeak azaltzen dira. 25 egunetan 5 bider sortu ditu irakasleak taldeak eta hauetatik 4 mistoak izan dira. Talde ez mistoak behin bakarrik sortu ditu. Gorputz Hezkuntzako saioetan, irakasleak ez ditu behin ere taldeak egin eta hauek ikasleen eskutan utzi ditu. Irakasleak adierazitako modu ordenatan eginez gero (neska-mutila-neska-mutila ...), talde mistoak sortu dituzte, aldiz, inongo ordenarik gabe modu librean egin dituztenean, ez mistoak.

Gutxi batzuk izan ezik, irakasleak sexismo praktika gehienak aurrera eraman ditu bere egunerokotasuneko praktketan. Honek, hipotesia baieztatu egiten du.

**2.1. HIPOTESIA: Ikastetxeko irakasle taldeak, Hezkuntza graduren bat ikasten ari den ikasle taldeak baino ezagutza maila txikiagoa du hezkidetzaren inguruan eta honekiko duen jarrerara ezkorragoa da.**

Hipotesi honen datuak aurkezteko, galdetegiko datuak analizatu dira. Hasteko, esan beharra dago, hezkidetzaren inguruko formazioa jaso duten ikasle eta irakasle kopurua berdina dela; %60ak formazioa jaso du eta %40ak ez. Bestetik, ea hezkidetzaren zer den dakiten galdetzerakoan, irakasle-taldearen eta ikasle-taldearen emaitzak antzekoak izan dira. Bietan %75ak baietz erantzun du. Irakasle-taldean, gainontzeko %25ak ziur ez dagoela aitortu du eta irakasle-taldean antzekoa gertatu da; %20a ez dago ziur eta %5ak ez daki.

Datuen analisia, aztertuko den gaiaren arabera antolatuta dago. Gai bakoitzeko grafiko bat ageri da, guztira zazpi grafiko direlarik: feminismoa, eskola mistoa, ezkutuko curriculum, curriculum esplizitua, diskriminazio positiboa, hezkidetzaren eta hezkidetzarekiko jarrerak.

Feminismoa												
Galderak	Irakasle-taldea (20)						Ikasle-taldea					
	Emakumeak (15)			Gizonak (5)			Emakumeak (14)			Gizonak (6)		
	A	D	X	A	D	X	A	D	X	A	D	X
1.	2	13	0	0	5	0	1	13	0	0	6	0
2.	9	1	5	1	0	4	14	0	0	6	0	0
3.	1	10	4	0	2	3	0	14	0	0	6	0
4.	1	10	4	0	2	3	0	14	0	0	6	0
<b>TOTALA</b>	13	34	13	1	9	10	15	41	0	6	18	0

Taula 10 - Feminismoaren inguruko galderak

Taula honetan (Taula 10) ikus daitekeenez, ikasle-taldeak irakasle-taldeak baino ezagutza handiagoa du feminismoaren inguruan. 2. galderan, ikasle-taldeko gehiengo osoak feminismoa beharrezkoa dela baieztatzen du, aldiz, irakasle-taldean ezjakintasan gehiago azaltzen da nahiz eta emakumeen gehiengoak adostasuna adierazi. 3. eta 4. galderak, berriz, feminismoaren mitoak adierazten dituzte. Irakasle-taldea guztiz desadostasun agertu da hauetan baina lehen bezala, aniztasun gehiago ageri da irakasleen artean. Sexua irizpide hartuta, aipatu beharrezkoa da ikasle-taldeko emaitzetan ez dela ia ezberdintasunik ageri emakume eta gizonen artean, bai ordea, irakasle-taldean. Feminismoaren beharra aipatzerakoan emakumeek baietzean determinazio gehiago azaltzen dute gizonen baino, hauek ezjakintasan edo zalantza handia azaleratuz.

11.taulan, eskola mistoaren inguruan galdetzerakoan jasotako emaitzak ageri dira. Emaitzarik nabarmenena, 8. galderako datuak izan dira. Honetan, eskola mistoak emakume eta gizonen desberdintasun sozialak kontutan hartzen ez dituela eta hauek desagerrarazteko neurririk hartzen ez duela baieztatzen da. Irakasle-taldean soilik 20tik

5 emakumeek adierazi dute adostasuna; ikasle-taldean berriz, 13k eta berriro ere gehiengo emakumeak. 6. baieztapenean, eskola mistoak aukera berdintasun erreala eskaintzen duela esaten da eta berriro ere, ikasle-taldeak ezagutza handiagoa erakutsi du, batez ere, emakumeek. Beraz, ikasle eta irakasleen artean, ezagutza mailan desberdintasun handiak daudela esan daiteke eta irakasleen artean ezagutza maila handiena dutenak emakumeak direla. Ikasle-taldean sexuaren araberako desberdintasunik ez da antzematen.

Eskola												
Galderak	Irakasle-taldea						Ikasle-taldea					
	Emakumeak (15)			Gizonak (5)			Emakumeak (14)			Gizonak (6)		
	A	D	X	A	D	X	A	D	X	A	D	X
5.	11	2	2	5	0	0	10	2	2	4	1	1
6.	6	5	4	4	1	0	3	10	1	2	3	1
7.	4	8	3	2	3	0	2	11	1	2	4	0
8.	5	7	3	0	3	2	11	3	0	2	2	2
<b>TOTALA</b>	26	22	12	11	7	2	26	26	4	10	10	4

Taula 11 - Eskola mistoaren inguruko galderak

Hurrengo taulan (Taula 12), azaleko curriculumaren gaian lortutako emaitzak azaltzen dira. Bai irakasle-taldean zein ikasle-taldean, lanbideek duten genero-marka oso onartua dago (11. eta 12. galdera). Hala ere, aipatzekoa da, irakasle-taldeko gizonak ez dutela nahiak edota desioak baldintzatuta daudela onartzen eta emakumeek ere zalantzan dituztela (13. galdera). Ikasle-taldean, aldiz, onartu egiten dute. Testuliburuei dagokionez (15. galdera), bi taldeek hauetan dagoen sexismoa ikusteko gai direla esan daiteke. Orokorrean, curriculum esplizituko ezagutzak handiak dira bi taldeetan. Hala ere, ikasleek sexismo forma hauen jatorria ikusteko kapazagoak direla ikusten da.

Curriculum esplizitua												
Galderak	Irakasle-taldea						Ikasle-taldea					
	Emakumeak (15)			Gizonak (5)			Emakumeak (14)			Gizonak (6)		
	A	D	X	A	D	X	A	D	X	A	D	X
11.	3	9	3	0	4	1	0	12	2	0	3	3
12.	12	0	3	4	1	0	10	2	2	5	1	0
13.	10	4	1	1	3	1	13	0	1	5	1	0
15.	12	2	1	5	0	0	13	0	1	5	0	1
<b>TOTALA</b>	37	15	8	10	8	2	36	14	6	15	5	4

Taula 12 - Curriculum esplizituari dagozkion datuak

Ezkutuko curriculumaren bidez transmititzen den sexismoa aztertzeko baieztapenen emaitzak hauek dira. 14. galderan ikus daitekeenez, irakasle-taldeak ez du eskolan azaltzen den androzentrismoa ikusten; ikasle-taldeko gehiengoak, ordez, eskolak eredu maskulinoa erreferentetzat hartzen duela onartzen du. Bestetik, irakasle-taldeko emakumeak ez dira haien praktika inkontzienteek erreproduzitzen duten sexismoaz kontziente (16.galdera), gizonak eta ikasle-taldeak hau onartzen duten bitartean nahiz

eta gero kontraesanetan jauzi. Adibidez, gure aurreiritziek ikasleengan duten eragina aipatzerakoan (17. galdera), irakasle-taldeko gizon zein emakumeek baieztapena ezeztatzen dute. Beste alde batetik, sexuz bereizitako zigorrek edo lekuz kanpoko jarrerai emandako erantzunak aipatzerakoan (20. eta 21. galderak), irakasleek zein ikasleek desadostasuna adierazten dute. Gehiengo handiak onartzen duen gauza bakarra, hizkuntza sexistaren erabilera da (19. galdera).

Hortaz, nahiz eta ikasleek irakasleek baino ezagutza maila handiagoa azaldu, hizkuntza sexista izan ezik, ez batak ez besteak ez ditu inkontzienteki transmititzen diren sexismo formak onartzen. Hala ere, hauen inguruan hausnartzeko interesa azaltzen du (22. galdera).

Ezcutuko curriculumara												
Galderak	Irakasle-taldea						Ikasle-taldea					
	Emakumeak (15)			Gizonak (5)			Emakumeak (14)			Gizonak (6)		
	A	D	X	A	D	X	A	D	X	A	D	X
9.	12	3	0	5	0	0	13	1	0	5	1	0
14.	6	9	0	2	3	0	8	3	3	4	2	0
16.	7	8	0	4	1	0	12	0	2	4	1	1
17.	5	6	4	1	4	0	11	3	0	4	0	2
18.	7	6	2	4	1	0	9	5	0	4	2	0
19.	9	6	0	4	0	1	11	0	3	4	1	1
20.	4	11	0	0	4	1	2	9	3	3	1	2
21.	3	12	0	0	4	1	5	6	3	0	3	3
22.	12	0	3	4	0	1	13	1	0	5	0	1
<b>TOTALA</b>	65	61	9	24	17	4	84	28	14	33	11	10

Tabla 13 - Ezcutuko curriculumari dagozkion datuak

12. taula honetan, diskriminazio positiboaren inguruko ezagutzen datuak azaltzen dira. Ikus daitekeenez, irakasle-taldeko gehiengoak ez da diskriminazio positiboaren alde agertzen. Ikasle-taldek, aldiz, batzuetan emakumeei protagonismoa eman behar zaiela adierazten du (10. galdera) baina sexu talde bakoitzari arreta desberdina eskaintzearen kontra agertzen da (24. galdera). Hala ere, ikasle-taldearen emaitzetan aniztasuna ageri da.

Diskriminazio positiboa												
Galderak	Irakasle-taldea						Ikasle-taldea					
	Emakumeak (15)			Gizonak (5)			Emakumeak (14)			Gizonak (6)		
	A	D	X	A	D	X	A	D	X	A	D	X
10.	6	7	2	1	3	1	10	1	3	4	2	0
24.	4	9	2	0	5	0	5	6	3	2	4	0
<b>TOTALA</b>	10	16	4	1	8	1	15	7	6	6	6	0

Taula 12 - Diskriminazio positiboaren inguruko datuak

Ondorengo taulan (Taula 13), hezkidetzaren inguruko baieztapenetan lortutako datuak ageri dira. Nahiz eta ezjakintasuna nabaria izan, batez ere irakasle-taldean, bi taldeek hezkidetzaren inguruko ezagutza maila nahikoa adierazten dute. Eskolan dagoen sexismoa onartu eta hezkidetzaren beharrezkoa dela baieztatzen dute (25. galdera).



Hezkidetzaren inguruko ezagutzen datuak												
Galderak	Irakasle-taldea						Ikasle-taldea					
	Emakumeak (15)			Gizonak (5)			Emakumeak (14)			Gizonak (6)		
	A	D	X	A	D	X	A	D	X	A	D	X
23.	9	0	6	3	1	1	11	0	3	6	0	0
26.	11	0	4	4	0	1	12	0	2	5	0	1
25.	0	12	3	0	4	1	0	14	0	0	5	1
<b>TOTALA</b>	20	12	13	7	5	3	23	14	5	11	5	2

Taula 13 - Hezkidetzaren inguruko ezagutzen datuak

Azken taula honetan (Taula 14), irakasle-taldeak zein ikasle-taldeak hezkidetzaren aurrean adierazten duten jarrera aztertzeko datuak bildu dira. Bi taldeek, hezkidetzaren inguruko formazioa beharrezkotzat hartzen dute eta hau etengabekoa izan behar dela baieztatzen dute. Hala ere, irakasle-taldearen artean ezjakintasuna gehiago ageri da ikasle-taldean baino. Gehiago handia, egunerokotasuneko praktikak berrikusteko prest dago, sexismoarekin akabatze bide gisa (30. galdera). Aipatzekoa da, nahiz eta kantitate txikia izan, desadostasunak soilik gizonetara ageri direla, batez ere, irakasle-taldean. Beste alde batetik, irakasle-taldeko gizonak izan ezik, gainontzeko guztiek hezkidetzaren oraindik ezezaguna den kontzeptua dela aipatzen dute (31. galdera). Beraz, orokorrean, jarrera ona eta prestutasuna adierazten dela esan daiteke eta ikus daitezkeen oztipo bakarrak, gizonak ezarritakoak direla.

Jarrerak												
Galderak	Irakasle-taldea (20)						Ikasle-taldea (20)					
	Emakumeak (15)			Gizonak (5)			Emakumeak (14)			Gizonak (6)		
	A	D	X	A	D	X	A	D	X	A	D	X
27.	12	0	3	5			13	0	1	5	1	0
28.	9	0	6	2	1	2	14	0	0	5	0	1
29.	11	0	4	5	0	0	14	0	0	6	0	0
30.	12	0	3	4	1	0	14	0	0	6	0	0
31.	10	4	1	1	4	0	8	2	4	4	2	0
<b>TOTALA</b>	54	4	17	17	6	2	63	2	5	26	3	1

Taula 14 - Hezkidetzarekiko jarreraren inguruko datuak

Beraz, orokorrean, hipotesiaren erdizka baieztatu dela esan daiteke. Alde batetik, ikasle-taldeak gai gehienetan ezagutza maila handiagoa erakutsi du. Bestetik, bi taldeen aldetik, bai jarrera ona bai prestutasuna adierazten dela esan daiteke eta ikus daitezkeen oztipo bakarrak, gizonak ezarritakoak direla. Beraz, irakasle-taldeak ezagutza maila txikiagoa du baina ez du jarrera ezkorragorik adierazten.

### 3.2. Eztabaida eta ondorioak

Ikerketa-laneko azken atal honetan, emaitzen bidez ateratako ondorioak aztertuko dira. Lehenengo ondorioa, irakasleek curriculum esplizituaren bidez transmititzen den sexismoa ondo identifikatzen dutela da. Bai irakaslea bai irakasle-taldea, lanbideen genero markaz eta testuliburu-tako sexismoaz kontziente dira. Santos-ek (1996-1997) aipatu bezala, curriculum esplizitua planifikazio kontzienteari dagokio eta kontzientea

den heinean, ikusgarriagoa ere. Gainera, curriculum honen bidez transmititzen diren sexismo formak, datu objektibo eta ukaezinez frogatu daitezke, adibidez, testuliburuetakoz gizon eta emakumeen portzentajeak. Honek, sexismo mota horiek ikusgarriago bihurtzen ditu. Azkenik, lanbideen genero marka esate baterako, sozialki errekonozitua den errealitate bat da eta errekonozimendu horrek, sexismoa identifikagarriagoa bihurtzen du.

Bigarren ondorioa, ezkutuko curriculumeko sexismoari dagokio. Argi geratu da, bai irakasleak zein irakasle-taldeak, curriculum honen bidez transmititzen den sexismoa identifikatzeko zailtasunak dituela. Romero eta Lugok (2014) diotenarekin bat eginez, irakasleek ez dute ikasleekiko interakzioetan transmititzen den sexismoa ikusten baina ikasleen artean sortzen diren sexismo formak onartzen dituzte.

Beraz, sexismoa egon badagoela ikusten dute baina ez dute nor bere gain hartu beharreko ardura onartzen, haien burua sexismo transmisore gisa ikusten ez dutelako. Nahiz eta irakasle-taldearen %60ak formazioa jaso, ez dira sexismo inkontzientek identifikatzeko gai, agian, jasotako formazioak gaia azalez lantzen dutelako. Ondorioz, hausnarketa indibidual zein kolektiboak bultzatzen dituen formazio sakona beharrezkoa dela esan dezakegu.

Hirugarrenez, irakasleak, irakasle-taldeak eta ikasle-taldeak hezkidetzarekiko duen jarrera baikorra eta aldaketarako prestutasuna adierazten dutela esan daiteke. Bonalek (1997) dioenez, irakasleriak aldaketa hezkidetzarekiko erresistentzia jartzen du baina kasu honetan hori ez da gertatu. Nire ustez, irakasleen %60ak formazioa jaso duenez behintzat honekiko interesa eta prestutasuna garatu du. Ez dituzte sexismo forma oso inkontzientek identifikatzen baina azalekoak bai, eta beraz, hauekin amaitzeko prest daudenez, hezkidetzarekiko jarrera positiboa garatu dute. Nahiz eta sexismo forma batzuk ez onartu, hausnarketa sakonaren beharra azpimarratzen dute, baita formazioaren beharra ere. Honek zera esan nahi du; irakasleria aldaketak burutzeko prest dagoela bai maila indibidualean bai kolektiboan baina eskolak ez duela hausnarketa horiek bermatzeko espazio ezta denborarik ahalbidetzen. Egoera honek, irakasleek haien egunerokotasuneko praktikan transmititzen den sexismoa ukatzea edo ez identifikatzea dakar.

Irakasle Eskoletako ikasleei dagokionez, zera ondoriozta dezakegu; ikasle-taldearen hezkidetzaren ezagutza maila irakasle-taldearena baino handiagoa da. Aristizabalek (2011) egindako ikerketak, ikasleen ezagutza-maila baxua frogatu zuen. Kasu honetan, aldiz, ikasleek irakasleek baino ezagutza maila handiagoa erakutsi dute hezkidetzan.

Hala ere, aipatu beharra dago, irakasle-ikasle interakzioetan sortzen den sexismoa identifikatzeko irakasleek dituzten zailtasun berak dituztela ikasleek. Hortaz, unibertsitatean jasotzen duten formazioa hobetu dela esan daiteke baina seguruenik, irakasleek jasotako formazioaren akats berdinak dituela, hots, gaia azaletik eta hausnarketa indibidualik gabe tratatzen duela.

Azkenik, bai irakasle- bai ikasle-taldean emakumeek maila handiagoa erakutsi dutela esan beharra dago; hau, Bonalek (1997) dioenarekin bat dator. Emakumeak jendarte matxista eta patriarkalean subjektu zapalduak diren heinean, zentzuzkoa da sexismoaren identifikazioa gizonak baino errazago burutzea. Aldi berean, gizonak subjektu zapaltzaileak direnez, haien praktikak kuestionatzeko erresistentzia gehiago eta kontzientzia gutxiago azaltzea liteke logikoena. Hala ere, ezagutza mailan, emakumeen eta gizonen arteko diferentzia tartea ez da muturrekoa izan eta kasu askotan, desberdintasuna oso txikia izan da.

Ondorioz, lan hau burutzeko zailtasunik handiena behaketa izan da, izan ere, saio guztietan zehar behaketari arreta jartzea ezinezkoa izan da. Etorkizunean egin litekeena, irakaslearen saioak grabatzea da. Bestetik behaketa eta elkarrizketa irakasle bakarrari eginik ikerketatik ezin izan da ondorio orokorragorik atera, hortaz, hurrengorako, sexu desberdineko irakasle desberdinei behaketa eta elkarrizketa egitea litzateke aproposena. Azkenik, galdetegia egin duten parte-hartzaile kopurua ere txikia izan dela esan daiteke. Ikerketa osatzeko, ikastetxe zein unibertsitate desberdineko ikasle eta irakasleei pasatu ahal zaie galdetegia, horrela zentroen arteko desberdintasunak ere ikusi ahal izango dira.

#### **4. Erreferentzia bibliografikoak**

- Aristizabal, P. (2011). *Generoaren trataera irakasleen formazioan*. Zornotza: Erroteta.
- Aristizabal, P., Gomez-Pintado, A., Ugalde, A. eta Lasarte, G. (2018). La mirada coeducativa en la formación del profesorado. *Revista complutense de educación*, 29(1), 79-95. <http://dx.doi.org/10.5209/RCED.52031> tik berreskuratua.
- Benedi, L. (Ed.). (2012). *Estudios sobre la historia de la Enseñanza Secundaria en Aragón*. Zaragoza: Institución “Fernando el Católico”.
- Bengoechea, M. (2003). *Influencia del uso del lenguaje y los estilos comunicativos en la autoestima y la formación de la identidad personal*. Emakunde: emakumearen euskal erakundea <http://www.emakunde.euskadi.eus/nahiko/-/informacion/formacion-profesorado/> tik berreskuratua
- Bonal, X. (1997). *Las actitudes del profesorado ante la coeducación*. Barcelona: Graó
- Bujan, K. (2001). “Kasu azterketa” metodoaren izaera: kasu azterketa diseinua EHUko hainbat tesi lanetan. *Revista psicodidáctica*, (11-12), 133-142.
- Díaz, I. (2016). *Maisu maistren formakuntza genero berdintasunean* (gradu amaierako lana). Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola, Leioa, España.

- Estébanez, G. eta González, G. (1988). ¿Escuela mixta o coeducación?: el sexismo en la enseñanza, un error silenciado. *Tabanque:Revista Pedagógica*, (4), 131-146.
- Emakunde (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. <http://www.emakunde.euskadi.eus/dokumentazioa-argitalpenak/-/informazioa/gidak/> tik berreskuratua.
- García, M., Cala, M. J., eta Trigo, M. E. (2016). Conocimiento y actitudes hacia el feminismo. *Femmeris*, 1-2 (1), 95-112. doi: <http://dx.doi.org/10.20318/femmeris.2016.3229>
- Guerrero, M.A. (2016). La investigación cualitativa. *INNOVA Research Journal*, 1(2), 1-9.
- Hernandez, J.M. (2018). *Hizkuntzak aztergai; ikerketa-metodoetara oinarritzko hurbilpena*. Auñamendi Entziklopedia [on line], 2018. [Kontsulta data: 2018ko martxoaren 27a]. <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/hizkuntzak-aztergai-ikerketa-metodoetara-oinarritzko-hurbilpena/ar-152152/> tik berreskuratua
- Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak; Teoria eta adibideak*. Zarautz: Itxaropena, S.A.
- Mertón, R. (1949). *Social Theory and Social Structure*. México D. F.: Fondo de cultura económica
- Pitas, S. eta Pétergas, S. (2002). Investigación cuantitativa y cualitativa. *Cuadernos de Atención Primaria*, (9), 76-78.
- Reuelta, G. (Ed.). (2017). *Los nuevos totalitarismos*. Madrid : Grafimar Coop. V.
- Romero, S. eta Lugo, M. (2014). Diagnóstico de actitudes hacia la igualdad y la coeducación. La perspectiva del profesorado de institutos de educación secundaria. *Aportaciones a la investigación sobre mujeres y género*. V. Congreso Universitario Internacional “Investigación de Género”. Sevilla,
- Santos, M.A. (1996-1997). Curriculum oculto y construcción del género en la escuela. *Kikiriki. Cooperación educativa*, (42-43), 14-27.
- Simon, M. E. (Ed). (2003). Educar para la convivencia desde la Igualdad. *Feminario de Alicante* Fuerteventura.
- Simon, M. E. (2008). *Orientación y coeducación para la igualdad*. Emakunde: emakumearen euskal erakundea. <http://www.emakunde.euskadi.eus/nahiko/-/informacion/formacion-profesorado/> tik berreskuratua
- Subirats, M. (1994). Conquistar la igualdad: la coeducación hoy. *Revista Iberoamericana de Educación*, (6), 49-78.
- Subirats, M. eta Tomé, A. (2010). *Balones fuera*. Barcelona: Octaedro.
- De Beauvoir, S. (1949). *El segundo sexo*. Madrid: Ediciones catedra.
- Torres, J. (1991). *El curriculum oculto*. Madrid: Ediciones morata,
- Villacorta, R. (2014). *Rastreando percepciones en torno a la coeducación* (gradu amaierako lana). Universidad de Valladolid. Facultad de Educación de Palencia, Palentzia.

## ERANSKINAK

## 1. ERANSKINA: Behaketa-orria

## ➤ HIZKUNTZA:

	Adjektibo estereotipatua	Noiz	Non	Zer egiten?
Mutilak:				
Neskak:				

Jarrerak justifikatzeko desberdintasun sexualetara jo:	Zelan?	Noiz	Non	Zer egiten?

Hizkuntza sexista				
Hitza(k)	Noiz	Non	Zer egiten?	

## ➤ INTERAKZIOAK:

Adibide gisa jarritako gaiak				
“Maskulinoak”	“Femeninoak”	Noiz	Non	Zer egiten?

Lekuz kanpoko erantzunak / jarrerak:					
Mutilak	Gutziz errefusatua	Salatua	Onartua	Gerora txanda eman	Gerora txanda ukatu

Lekuz kanpoko erantzunak / jarrerak:					
Neskak	Gutziz errefusatua	Salatua	Onartua	Gerora txanda eman	Gerora txanda ukatu

Neskei zuzendutako galderak				
Gaia/Saioa	Bai/Ez	Abstraktuak/Zabalak	Errazak	Zailak

Mutilei zuzendutako galderak				
Gaia/Saioa	Bai/Ez	Abstraktuak/Zabalak	Errazak	Zailak

Mutilei ezarritako zigorrak			
Fisikoak	Zigor berbalak	Neurri hertsitzaileak	Elkarrizketa

Neskei ezarritako zigorrak			
Fisikoak	Zigor berbalak	Neurri hertsitzaileak	Elkarrizketa

Mutilei nesken jarrerak izateagatik ezarritako zigorrak			
Fisikoak	Zigor berbalak	Neurri hertsitzaileak	Elkarrizketa

Neskei mutilen jarrerak izateagatik ezarritako zigorrak			
Fisikoak	Zigor berbalak	Neurri hertsitzaileak	Elkarrizketa

Izenak ahaztea	
Mutilenak	Neskenak

Gorputz Hezkuntzan hautatutako bolondresak	
Mutilak	Neskak

➤ ANTOLAKUNTZA:

Taldekatzeak	Talde mistoak	Talde ez-mistoak

Gorputz Hezkuntzan egindako taldekatzeak	
Nork	Zelan

## 2. ERANSKINA: Elkarriketa behatutako irakasleari

Izena:

Sexua:

1. Gaur egungo jendartean emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatuta dagoela uste duzu? Zergatik?
2. Ba al dakizu zer den hezkidetzari? Azaldu bi lerrotan.
3. Hezkidetzari buruzko formazioak jaso al duzu? Zein? Errepikatze modukoa?
4. Hezkidetzaren inguruko formazioa beharrezkoa dela uste duzu? Zergatik?
5. Uste duzu, eskola publikoak, sexismoari aurre egiten diola? Zergatik?
6. Aipatuko zenituzke, eskolan aurki ditzakegun adibide sexistak ezberdinak?
7. Zergatik uste duzu, alor zientifiko eta teknologikoan emakumeen kopurua txikia dela?
8. Zergatik uste duzu, Haur Hezkuntzako irakasleen gehiengo handia emakumea dela?
9. Historian zehar, emakumeak ezabatuak izan garela uste duzu?
10. Zure iritziz, testuliburuetan eskaintako testu edota adibideak sexistak izan daitezkeela uste duzu?
11. Hizkuntzaren bidez sexismoa transmititzen dugu? Nola?
12. Emakumeak negartagoak direla uste duzu? Eta arduratsuagoak? Zergatik?
13. Mutilak ausartagoak dira? Eta leialagoak? Zergatik?
14. Zure iritziz, orokortzerakoan hitz maskulinoak erabiltzea sexismoa transmititzea da? Adibidez: anaikorra, gizona gizakiaren orde...
15. Klaseetan mutilak gaira erakartzea, neskek erakartzea baino zailagoa da eta beraz, gai "maskulinoak" erabiltzea litzateke aproposena. Ados al zaude?
16. Neskei zuzendutako galderak mutilei zuzendutakoak baino sinpleagoak direla uste duzu?
17. Irakasleok, mutilei neskei baino zigor zorrotzagoak ezartzen dizkiegula uste duzu? Eta nesken "lekuz kanpoko" erantzunak gutxiago onartzen ditugula?
18. Zure iritziz, irakasleok, sexuz berezitatutako taldekatzeak egiten ditugu?

### 3. ERANSKINA: Galdetegia irakasle-taldeari

Bilboko Irakasle Eskolako ikaslea naiz eta Lehen Hezkuntzako 4.kurtsoa amaitzear nago. Gradu Amaierako Lana eskola hezkidetzaillearen inguruan burutzen ari naiz eta laneko atal bat, jardun profesionalean diharduten irakasleek eta etorkizuneko irakasleak izango direnek hezkidetzaren inguruan dituzten ezagutzak eta aurreiritziak konparatzea izango da. Irakasle gisa jarduten baduzu, mesedez, bete ezazu inkesta hau.

Jarraian, 31 baieztapen agertuko zaizkizu eta egin beharreko gauza bakarra baieztapenekiko adostasuna edo desadostasuna adieraztea izango da. Iritzirik izan ezean, “ez dakit” zutabea markatu. Mila esker zure ekarpenagatik!

## IRAKASLERIA ETA HEZKIDETZA

- Adina:
- Sexua: Maskulinoa / Femeninoa / Beste bat
- Zenbat urtez ibili zara lanean?
- Ba al dakizu zer den hezkidetza? BAI / EZ / EZ NAGO ZIUR
- Hezkidetzaren inguruko formaziorik jaso al duzu? BAI / EZ

Zein? \_\_\_\_\_

Esan baieztapen hauekin ados zauden edo ez:

BAIEZTAPENAK	ADOS	DESADOS	EZ DAKIT
1. Gure jendartean emakume eta gizonen arteko berdintasuna jada bermatua dago.			
2. Gaur egun, feminismoa beharrezkoa da.			
3. Feminismoak, emakumeak gizonen gainetik jarri nahi ditu.			
4. Feminismoak gizon eta emakumeon harremanak oztopatu nahi ditu.			
5. Eskola jendarte sozial, ekonomiko eta kulturalaren erreproduzio hutsa da eta hortaz, jendartearen aldaketarako bide ere.			



6. Gaur egungo eskolak, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasun erreala eskaintzen du.			
7. Hezkuntza segregatua amaitu zenetik eskolan ez dago sexismorik, emakume eta gizonek heziketa bera jasotzen dutelako.			
8. Eskola mistoak ez ditu emakume eta gizonen arteko desberdintasun sozialak kontuan hartzen eta beraz, ez du hauek desagerrarazteko neurririk hartzen.			
9. Gizon eta emakumeok genero rol bat berenganatzen dugu txikitatik.			
10. Batzuetan, emakumeei protagonismoa eman behar zaie nahiz eta honek, gizonei protagonismoa kentzea suposatu.			
11. Emakumeek ez dute alor zientifiko eta teknologikoko ikasketarik aukeratzen, ez dutelako alor hori gustuko. Erabaki hauek pertsonalak eta banakakoak dira eta hauetan ez du inguruneko faktorerik eragiten.			
12. Hezkuntzan dagoen emakumeen kopuru handia, lanbideek dituzten genero-markaren adibide da; izan ere, emakumearen rola, zaintza lanarekin lotuta dago.			
13. Gure erabaki eta nahiak, jendarteko balio kultural, sozial eta ekonomikoengandik baldintzatuta daude.			
14. Eskolak eredu maskulino hegemonikoa hartzen du erreferentetzat, eta emakumeak eredu honetara egokitzea behartzen ditu. Honek, sexismoa eragiten du.			
15. Testuliburuetan emakumeen gabezia handia dago: adibideetan, kontakizunetan,			

historiako partaide gisa ...			
16. Irakasleon praktika inkontzientek, sexismoa erreproduzitzen dute.			
17. Irakasleok generoaren arabera aurreiritzi desberdinak sortzen ditugu ikasleengan eta honek, genero identitatea sortzen laguntzen du.			
18. Irakasleok, orokorrean, neskei eta mutilei tratu bera ematen diegu.			
19. Erabiltzen dugun hizkera, generoaren bidez baldintzatuta dago, eta beraz irakasle-ikasle interakzioetan, sexismoa erreproduzitzen dugu.			
20. Mutilei zigor zorrotzagoak ezartzen dizkiegu neskei baino.			
21. Nesken “lekuz kanpoko” jokabideak, mutilenak baino gehiago errefusatu ditugu.			
22. Irakasleok gure egunerokotasuneko praktika, jarrera eta interakzioen inguruan hausnartu beharra daukagu, sexismoa identifikatu eta honi aurre egin ahal izateko.			
23. Hezkidetzak gizon eta emakumeen desberdintasun sozialetik abiatzen da berdintasun soziala lortzeko. Hau da, bakoitzaren beharrezkoak egokitzen da aukera berdintasun erreala lortu ahal izateko.			
24. Berdintasuna lortzeko, sexu talde bakoitzari arreta desberdina eskaini behar diogu.			
25. Gaur egungo eskolan ez dago sexismorik, beraz, hezkidetzak ez da beharrezkoa.			
26. Eskola hezkidetzak, eskola mistoak dituen gabeziak gainditzeko esku hartze hezitzailea			

da eta hortaz, ezinbestekoa.			
27. Irakasle on formazio profesionalean, hezkidetzaren inguruko formazioa falta da.			
28. Hezkuntzako graduetan, hezkidetzaren irakasgai gisa txertatzeak aurrerapen handiak ekarriko lituzke.			
29. Irakasle on ibilbide profesionalean zehar, hezkidetzaren inguruko etengabeko formazioa ezinbestekoa da.			
30. Prest nago, sexismoarekin akabatzeke asmoz, nire egunerokotasuneko praktikak berrikusteko eta hauen inguruan hausnartzeko, bizitza profesionalean zein pertsonalean. (indibidualki eta kolektiboki).			
31. Hezkidetzaren, oraindik, hezkuntzan ezezaguna den kontzeptua da.			

## 4. ERANSKINA: Galdetegia ikasle-taldeari

- Adina:
- Sexua: Maskulinoa / Femeninoa / Beste bat
- Unibertsitatean Hezkuntza graduren bat ikasten ari zara? BAI / EZ
- Graduak zein kurtsotan zaude?
- Ba al dakizu zer den hezkidetzak? BAI / EZ / EZ NAGO ZIUR
- Hezkidetzaren inguruko formaziorik jaso al duzu? BAI / EZ

Zein? \_\_\_\_\_

Esan baieztapen hauekin ados zauden edo ez:

BAIEZTAPENAK	ADOS	DESADOS	EZ DAKIT
1. Gure jendartean emakume eta gizonen arteko berdintasuna jada bermatua dago.			
2. Gaur egun, feminismoa beharrezkoa da.			
3. Feminismoak, emakumeak gizonen gainetik jarri nahi ditu.			
4. Feminismoak gizon eta emakumeon harremanak oztopatu nahi ditu.			
5. Eskola jendarte sozial, ekonomiko eta kulturalaren erreproduzio hutsa da eta hortaz, jendartearen aldaketarako bide ere.			
6. Gaur egungo eskolak, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasun erreala eskaintzen du.			
7. Hezkuntza segregatua amaitu zenetik eskolan ez dago sexismorik, emakume eta gizonek heziketa bera jasotzen dutelako.			
8. Eskola mistoak ez ditu emakume eta gizonen arteko desberdintasun sozialak kontuan hartzen eta beraz, ez du hauek desagerrarazteko neurriak hartzen.			
9. Gizon eta emakumeok genero rol bat berenganatzen dugu txikitatik.			

10. Batzuetan, emakumeei protagonismoa eman behar zaie nahiz eta honek, gizonei protagonismoa kentzea suposatu.			
11. Emakumeek ez dute alor zientifiko eta teknologikoko ikasketarik aukeratzen, ez dutelako alor hori gustuko. Erabaki hauek pertsonalak eta banakakoak dira eta hauetan ez du inguruneko faktorerik eragiten.			
12. Hezkuntzan dagoen emakumeen kopuru handia, lanbideek dituzten genero-markaren adibide da; izan ere, emakumearen rola, zaintza lanarekin lotuta dago.			
13. Gure erabaki eta nahiak, jendarteko balio kultural, sozial eta ekonomikoengandik baldintzatuta daude.			
14. Eskolak eredu maskulino hegemonikoa hartzen du erreferentetzat, eta emakumeak eredu honetara egokitzea behartzen ditu. Honek, sexismoa eragiten du.			
15. Testuliburuetan emakumeen gabezia handia dago: adibideetan, kontakizunetan, historiako partaide gisa ...			
16. Irakasleon praktika inkontzienteeak, sexismoa erreproduzitzen dute.			
17. Irakasleok generoaren arabera aurreiritzi desberdinak sortzen ditugu ikasleengan eta honek, genero identitatea sortzen laguntzen du.			
18. Irakasleok, orokorrean, neskei eta mutilei tratu bera ematen diegu.			
19. Erabiltzen dugun hizkera, generoaren bidez baldintzatuta dago, eta beraz irakasle-ikasle interakzioetan, sexismoa erreproduzitzen			

dugu.			
20. Mutilei zigor zorrotzagoak ezartzen dizkiegu neskei baino.			
21. Nesken “lekuz kanpoko” jokabideak, mutilenak baino gehiago errefusaten ditugu.			
22. Irakasleok gure egunerokotasuneko praktika, jarrera eta interakzioen inguruan hausnartu beharra daukagu, sexismoa identifikatu eta honi aurre egin ahal izateko.			
23. Hezkidetzak gizon eta emakumeen desberdintasun sozialetik abiatzen da berdintasun soziala lortzeko. Hau da, bakoitzaren beharrietara egokitzen da aukera berdintasun errealera lortu ahal izateko.			
24. Berdintasuna lortzeko, sexu talde bakoitzari arreta desberdina eskaini behar diogu.			
25. Gaur egungo eskolan ez dago sexismorik, beraz, hezkidetzak ez da beharrezkoa.			
26. Eskola hezkidetzaila, eskola mistoak dituen gabeziak gainditzeko esku hartze hezitzailea da eta hortaz, ezinbestekoa.			
27. Irakasleon formazio profesionalan, hezkidetzaren inguruko formazioa falta da.			
28. Hezkuntzako graduatan, hezkidetzak irakasgai gisa txertatzeak aurrerapen handiak ekarriko lituzke.			
29. Irakasleon ibilbide profesionalan zehar, hezkidetzaren inguruko etengabeko formazioa ezinbestekoa da.			
30. Prest nago, sexismoarekin akabatzen asmoz, nire egunerokotasuneko praktikak berrikusteko eta hauen inguruan			

hausnartzeko, bizitza profesionalean zein pertsonalean. (indibidualki eta kolektiboki).			
31. Hezkidetza, oraindik, hezkuntzan ezezaguna den kontzeptua da.			

## 5. ERANSKINA: Elkarriketa ikastetxeko irakasleari (beteta)

Izena: Sergio Rescalvo Portu

Sexua: Mutila

### **1. Gaur egungo jendartean emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatuta dagoela uste duzu? Zergatik?**

Galdera polita ... bueno, bermatuta egon behar zan ezta? Egon beharko litzateke ... eehh ... nire inguruan nik esango nuke baietz baina buruak esaten dit baietz esatia, baina gero errealitatea ezberdina da. Nik pentsatzen dut ezetz, oraindik ere asko egin behar dugula hori lortzeko. Eehh.. nabaria da. Nabaria da dagoen ezberdintasuna, bai lanpostuetan, bai gure hizkuntzan, bai edozein arlotan. Orduan nik pentsatzen dut oraindik, nahiz eta pentsatu bermatuta dagoela, errealitatea ez dela horrela.

### **2. Ba al dakizu zer den hezkidetza? Azaldu bi lerrotan.**

Bueno, jakitea eta ezagutzea ezberdina da. Eehh nik pentsatzen det, ba, hezkidetza dela, ba, umeei bereziki azaltzea aukera berdina ditugula nahiz eta desberdinak izan. Nik pentsatzen dut neska bat eta mutil bat ezberdinak direla, ezberdinak direla bai fisikoki, bai psikologikoki eta bai ebolutiboki. Baina horrek ez du esan nahi eeh ezberdinak garela, hau da, eeh jakin behar dabe fisikoki bereziki desberdinak garela, onartu behar dugu hori. Baina horrek ez du eragiten, legearen aurrean eta gizartearen aurrean berdintasuna lortu behar dugu eta hori lortzeko bidea dala azaltzea berdina garela onartuz ezberdinak garela.

### **3. Hezkidetzari buruzko formaziorik jaso al duzu? Zein? Errepikatzeke modukoa?**

Ba ... ez, ez dut hartu, badakit eskoletan ematen direla baina nik zoritxarrez ez dut jaso.

### **4. Hezkidetzaren inguruko formazioa beharrezkoa dela uste duzu? Zergatik?**

Nik uste dut baietz, nik hori lehen esan dudan moduan ez dut formakuntzarik jaso baina horrek ez du esan nahi honi buruzko irakurketak edo nire ikerketa txikiak egin ditudala ezta? Nik pentsatzen dut baietz, pentsatzen dut orokorrean bai neskak baina mutilak matxistak garela, beraz, honi buruzko hausnarketa haundi bat beharrezkoa dela eta hau lortzeko formakuntza ezinbestekoa da.

### **5. Uste duzu, eskola publikoak, sexismoari aurre egiten diola? Zergatik?**

A ver nik pentsatzen dut baietz, bide horretan gaudela. Kanpainak egiten ditugu, saiatzen gara umeen aurrean hori erakustia, baina komentatu dugun bezala, modu transbersal batean ere sartuta dagoela sexismoa, hizkuntzan, keinuetan, marrazkietan ... baina bide horretan gaudela bai, pentsatzen dut.

### **6. Aipatuko zenituzke, eskolan aurki ditzakegun adibide sexista ezberdinak?**

Bai. Normalean eskola garbitzen dutenak neskak dira. Eskola gehienetan zuzendaritza karguak hartzen dutenak mutilak dira. Ez dakit sexista den ala ez baina irakasleonean artean gehienak neskak dira. Lehen komentatu dudana bezala, honi buruzko hausnarketa bat egin behar dugu ... egin behar dugula baina ez dakit zergatik mutilen artean ez da erakargarria lanpostu hau ezta? Hori igual beste sexista puntoren bat da, ez dakit ... baina beno, eta honi buruzko ideiak argiagoak izateko formakuntza ezinbestekoa dela.



**7. Zergatik uste duzu, alor zientifiko eta teknologikoan emakumeen kopurua txikia dela?**

Kulturalki, kulturalki betidanik, eeh, lanpostu horretan eeh baa, egon diren pertsonak mutilak izan dira, historian zehar, zuk eeh eeh irudikatzen baduzu zientifiko bat ba burura etortzen zaizu mutil erdi zoro bat hor sartuta eguzki argia ikusi gabe. Eta hori sartuta daukagu, eta eragina dauka noski. Gero esan didazu ea eskola publikoan sexistak garen, eta bueno, hor eztabaida bat sortu ahal dugu baina nik pentsatzen dut lantegi handietan edo ikas zentro handietan nabariagoa dela. Orduan, izan daiteke arrazoi potente bat.

**8. Zergatik uste duzu, Haur Hezkuntzako irakasleen gehiengo handia emakumea dela?**

Ba ez dakit, ez dakit eta honi buruz askotan pentsatu det. Ezagutzen ditut mutilak, Haur Hezkuntzako maisuak direla eta pozik daude eta bere lana primeran egiten dabe, neskak bezala, andereñoak bezala. Kulturalki, historikoki edo emakumea lotzen dugula umeekin, izan daiteke, arrazoi ezberdinak egon daitezke, hausnartzeko beste punto garrantzitsu bat.

**9. Historian, emakumeak ezabatuak izan garela uste duzu?**

Erabat. Guztiz. Eeh badakigu zein izan dan historian zehar emakumearen rola, garrantzia izan duela bai, baina historia idatzi duena beti gizon bat izan da, orduan bere ikuspuntua eman dio. Bere.. hori, garrantzitsuak izan direla, bai, baina lehen ez da gaur egungo egoera hausnarketa horretan sartuta daudela eta izkutuan egon direla baietz esan ahal da ... Rotundamente! Ja ja.

**10. Zure iritziz, testuliburuetan eskaintako testu edota adibideak sexistak izan daitezkeela uste duzu?**

Bai, bai. Honetan beste eztabaida bat sortzen da. Honi buruz hasten bazara pentsatzen, hausnartzen ba, sexista zer dan eta zer ez dan baah kostatzen zaizu. A ver, argi dago ba jarrera sexista bat identifikatzea erraza dela, argiagoak dira. Baina gero badauz beste batzuk, izkutuan, kulturalki hartu ditugunak eta horiek ere sexistak dira. Orain adibide bat jartzea zaila iruditzen zait, baina nik pentsatzen dut baietz, badaudela, eta bereziki umeen artean eta marrazkiekin. Eta hizkuntzan bueno! Zalantzarik ez.

**11. Hizkuntzaren bidez sexismoa transmititzen dugu? Nola?**

Bueno, hizkuntzak, lehen komentatu duguna. Gizon batzuek egin dabe, beno egin dabe ez... guztion artean sortu dugu baina gero boterea izan dutenak hizkuntza onartu edo idatzi dabe ezta? Kulturalki argi dago oso sexista dela. Esan ahal da ere euskera ez dela hain argi, eeh euskeran ez dela hain argi ikusten, generoa ez daukalako. Erderan ikaragarria da. Erdera nire ama hizkuntza da et nik ikusten dut nonahi eeh orain aipatzen ari garena. Euskeran ere badago, askotan orokorrean hitz egiterakoan hartzen dugu hitz klabe bat eta hitz horrek, pentsatzen baduzu, erreferentzia egiten die ba mutilei edo sexu maskulinoari.

**12. Emakumeak negartiagoak direla uste duzu? Eta arduratsuagoak? Zergatik?**

Ez, ni estereotipo horietan ez naiz sartzen. Nik pentsatzen dut emakume bat negartia izan daiteke eta beste bat ez. Bat arduratsuagoa eta beste bat ez, mutilak bezala. Lehen nik aipatu dut, pentsatzen dudala, eta fijo nau, ezberdinak garela, psikologikoki, ebolutiboki eta fisikoki. Baina ni ez naiz ausartzen hori esatera, bakoitza da den modukoa eta onartu behar dut.

**13. Mutilak ausartagoak dira? Eta leialagoak? Zergatik?**

Aurrekoan berdina.

**14. Zure iritzi, orokortzerakoan hitz maskulinoak erabiltzea sexismoa transmititzea da? Adibidez: anaikorra, gizona gizakiaren orde...**

Bai. Niretzat bai. Honi buruz asko pentsatu det. Sartuta daukagu, barneratuta daukagu. Hitz egiteko modua aldatzea, aldatzea hori oso zaila da. Ohitura, ez bakarrik ohitura hartzeagatik, ez dugulako beste hitzik topatzen, zaila da beste hitz topatzia eta jendearen aurrean hitz egitea beste modu batean txartzat har daiteke. Orduan, baietz, esango nuke baietz, sexismo mota txiki bat da eta hori aldatzeko lan handia egin behar dugula.

**15. Klaseetan mutilak gaira erakartzea, neskak erakartzea baino zailagoa da eta beraz, gai “maskulinoak” erabiltzea litzateke aproposena. Ados al zaude?**

Ez, ez nago batere ados. Nik pentsatzen dut gaur egungo hezkuntzaren oinarritzko gauza bat da umiak erakartzea eta motibatzea. Eta motibazio hori hartzea oso zaila da. Konplikatua. Baina ez nuke ezberdinduko neskak eta mutilak, ez, umeek ba gu baino askoz ezberdinak direla, beste gauza ... gauza asko dituzte eskolatik kanpo eta bere arreta deitzea zaila dela. Baina bai mutilena eta neskena, nik erabiltzen ditudan gauzak orokorrak dira. Batzuetan, nahigabe aipatuko ditut, zuk esan duzun moduan, nola esan duzu? Gai maskulinoak. Baina es que ni gai maskulino horietan ere galtzen naiz. Galdera bera, nik esango nuke gaizki planteatuta dagoela, zer da gai “maskulino” bat? Galdera horrekin ia, zu ere, leku bat hartzen ari zara, posizionamentu bat hartzen ari zara eta baldintzatzen ari zara nire erantzuna. Orduan nik esango nuke, nik, denak berdinak saiatzen naizela tratatzen eta beste alde batetik esango nuke galdera hau horrela planteatuta gaizki dagoela.

**16. Neskei zuzendutako galderak mutilei zuzendutakoak baino sinpleagoak direla uste duzu?**

Orokorrean? Orokorrean. Nik pentsatzen dut ezetz, edo pentsatu nahi dut ezetz. Nire kasuan ez. Galdera sinpleagoak egiten dizkiot zailtasunak daukanari. Nik ez dut uste emakume, edo kasu honetan, neska edo mutila dela. Nik pentsatzen dut ezetz, ezetz.

**17. Irakasleok, mutilei neskei baino zigor zorrotzagoak ezartzen dizkiegula uste duzu? Eta nesken “lekuz kanpoko” erantzunak gutxiago onartzen ditugula?**

Pentsatu nahi dut ezetz. Nik eeh, zigorren aldekoa ez nai, hori hasteko. Batzuetan, nire desjakintasun horretatik irtetzeko zigor bat ipintzen dut baina ez da ume batek behar duelako, nik behar dudalako da. Nik pentsatzen dut zigor bat izan behar duela baina

umeak ez du behar. Eta zein zan galdera barkatu? Ah bai, bai, eta nik eeh ez dut begiratzen neska edo mutila dan. Nik ikusten dut jarrera bat, jarrera hori saiatzen naiz bideratzen, ez zuzentzen, bideratzen ... saiatzen naiz motibatzen eta horrekin nahikoa izan behar zan. Batzuetan behartuta nago, baina nik ikusten dut nire burua behartuta eta zigor bat ezartzen det. Baina ez dut begiratzen zer motatako generoa daukan. Ez, ez, ez da horrela.

### **18. Zure iritziz, irakasleok, sexuz berezitatuko taldekatzeak egiten ditugu?**

Bai. Saiatzen gara, neskak eta mutilen kopuruak berdinak edo antzekoak izatea. Ez dakit generoa kontutan hartzea sexismoa dan. Ez dakit. Horretan pentsatzen badut eta horrela egiten badut, sexista nahiz? Saiatzen naizelako kopuru hori berdina izan behar dela? Nik horri buruzko zalantza asko ditut. Niri gustatuko litzaidake ba taldeak haiek egitea baina badakit ezinezkoa dela eta ni saiatzen naiz ba zailtasunak hartzia erreferentzia taldeak egiteko. Gerta daiteke, talde batean neskak egotea eta bestean mutilak, eta gaizki sentitzen naiz mutilak bakarri daudelako edo neskak bakarrik daudelako. Orduan saiatzen naiz konpentsatzen, baina konpentsazio hori sexista da? Nahita egiten dudalako? Edo ez da? Saiatzen naizelako ekiditen? Hor dago koska.